

**Herririk Herri | 2**

Atxondoko ludoteka ondoko zelaietan zortzi etxebizitza eraiki gura dituzte



**Berbaz | 10**

Nerea Goiria: "Durangon euskararen transmisioan galera handia egon da"

**Jaiak | Gehigarria  
Atxondo eta Berriz**



**DURANGALDEA | 3**



## Eskolara bidea oinez

Zabalarra ikastetxeko hainbat ikasle taldean batu eta oinez egin dute asteon eskolarako bidea. Ingurumenarekiko errespetuzkoa eta segurua den mugitzeko moduz hausnartzea izan da Oinezbusa proiektuaren helburu nagusia.

**KULTURA | 11**

### "Antzerkiaren sorkuntza bultzatu gura dugu"

Durangon aurkeztu dute Zubi ekimena Euskal Herriko sei antzoki eta bi antzerki konpainiak. Urtero, sortzaile gazteen antzezlan berri bati taularatu arteko bidea egiten lagunduko diote.



**ABADIÑO | 5**

### Bihar zabalduko dute AP-8ko peajea Gerediaga auzoan

Urte beteko atzerapenagaz bada ere, bihar inauguratuko du Bizkaiko Foru Aldundiak AP-8ko ordainleku berria. Hiru biribilgune eta hiru peaje eraiki dituzte. Obrak 47 milioi euroko aurrekontua izan du.

# ALKIMAX

Alquilamos soluciones



Eitua Industrigunea  
71G  
48240 BERRIZ  
(Bizkaia)  
94 682 45 50  
www.alkimax.com  
alkimax@alkimax.net

**Durangaldea | 2**

Egitarau zabala antolatu dute eskualdean San Joan Egunerako

**Iurreta | 6**

Goiuriako kofradiak udalaren erabakia baliobakotzat jo du

**Otxandio | 4**

Autoen sarrera mugatu gura du Otxandioko Udalak Mainerrotan

**Berriz | 9**

Musika eta gastronomia nagusi kulturarteko topaketetan, etzi



# HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak  
@anboto

## DURANGALDEA

# Urteko gaurik laburrenean hamaika ekitaldi aukeran

Su txikiz beteko dira Durangaldeko herriak San Joan Egunean

**T**radizioari eutsiz, San Joan bezperako gauean eskualdeko herri denetan piztuko dira suak. Gau berezi horren harira, hainbat ekitaldi prestatu dituzte, urtero legez.

Zaldibarren, esaterako, gaueko protagonista sua dela ikusita, horren inguruko ekitaldi bat pres-

tatu dute: Raku izeneko zeramika teknika japoniarrez egiten den ikusteko aukera egongo da Zaldibarko eskoletan. Japoniarrek 950 gradutan ateratzen zituzten zeramika piezak labetik, eta ostean zerrautsetan sartu, hozteko.

Iurretan musika kontzertuak daude sanjoanen harira. Gaur,

22:00etan, Gherttzainak, Zarraparra eta Txominbelarrak taldeak ariko dira zuzenean, plazan.

Ermuan, Txindurri dantza taldearen eta Pispilu abesbatzaren ostean, Axuri Beltza izeneko dantzaldi jendetsua egin gura dute. Atzo dantza ikastaroa eduki zuten parte-hartzaileek. ■ J.D.



Iurretako San Joan sua, Eliza osteko zelaian. Iñaki Irazabal

## ATXONDO

# Ludoteka ondoko zelaian zortzi etxebizitza egin gura dituzte

Etxebizitzen proiektua eginda dago; udalak ezin da gastuez arduratu eta horregatik kooperatiba eredia proposatu zuen eguazteneko herri batzarrean

Apata erdiguneko lur zati batean zortzi etxebizitza eraikitze proiektua eginda du udalak: bi eta hiru logelakoak, garajeekin. Ludoteka pareko zelaian daude aurreikusita, arraindegia dagoen eraikinaren atzean, eraikin horri itsatsita. Lurra udalarena da eta, proiektu osoa eginda dagoenez, "lanak bihar bertan hasteko moduan daude", David Cobos alkate ohiak herri batzarrean azaldu zuenez. Udalak, ordea, ezin die gaur egun gastu horiei aurre egin. Horregatik, eguazteneko udalbatzarrean kooperatiba bidezko sistema proposatu zuten. Hilabete barru-edo,

beste batzar bat egitekotan geratu ziren, herritarrek interesatuta dauden jakiteko. E-postaz eskatu daiteke informazio gehiago: [atxondokoetxeak@gmail.com](mailto:atxondokoetxeak@gmail.com)

**Proiektu osoa eginda dagoenez, "lanak bihar bertan hasteko moduan daude"**

Interesdunek kooperatiba sortu eta udal hirigintza hitzarmena sinatuko luke kooperatibagaz. Udalak lurra utzi egingo lizkioke kooperatibari, ez saldu. Hitzarmenasinatu ostean, kooperatiba arduratuko litzateke lanak aurrera eroateaz. Erabakiak sozio denen artean hartuko litzukete. Eraikina kooperatibarena litzakete eta bazkideek etxebizitza bakoitza erabiltzeko eskubidea izango

lukete. Hau da, kooperatiba ez litzakeke eraikina egiteko bakarrik izango. Ostean, eraikinaren mantenua ere kooperatiba bidez egitea proposatu dute: "Elkartasun kontzeptua ere sustatu gura dugu, beste bizitza eredu bat".

**125.000 euroko kostua**  
Proiektuaren txostena esku artean, kostuen inguruan egindako kalkulak ere azaldu zituzten. Lurra udalarenak direnez, espekulazioa ekidingo dute. Gainera, kooperatiba bera litzateke promotorea, bitartekari barik. Beraz, lanek milioi bat eta 1,2 milioi arteko kostua izango lukete: etxebizitza bakoitzeko, 125.000 eta 150.000 euro artean. Hasierako diru ekarpena 30.000 eurokoa bada, 447 eta 356 euro arteko izango litzateke hileko kuota; 50.000 euroko diru ekarpenagaz, 380 eta 288 euro artekoa. ■ J.D.

**"Elkartasun kontzeptua ere sustatu gura dugu, beste bizitza eredu bat"**

## SAN JOANETAKO EGITARAUAK

### ABADIÑO

**22:00etan:** Sua eta txokolatada Muntzaratzen.

### ATXONDO (Axpe)

**21:00:** Herri afaria Axpeko pilotalekuan

**22:30etan:** Otxandategi korala eta Luhartz taldea.

### BERRIZ

**21:00etan:** Kalejira Elizondotik Berrizburura Tarumba Percusion taldeagaz.

**21:30etan:** Txorizo dastaketa

**22:00etan:** Sua piztuko dute

**22:45etan:** Erromeria Ansorregi taldeagaz.

### DURANGO

**21:00etan:** San Fausto auzoa: Kalejira mozorrotuta. Ostean, Sua piztuko dute. Segidan,

txokolotea eta zurrakapotea.

### ERMUA

**22:00etan:** Sua piztuko dute Kardinal Orbe plazan, Euskal Birusak antolatuta.

Txindurri dantza taldea, Pispilu abesbatza, irrintzi lehiaketa eta suzko zezena eta Axuri Beltza dantzaldia.

### ELORRIO

**16:30:** San Joanera igoera plazatik. Ostean, Hipo eta Tomax pailazoak eta merendola.

**22:00:** Kiroldegi ondoan sua. Erromeria Arrabots taldeagaz.

### IURRETA

**Ekainak 22:**

**22:00etan:** Gherttzainak, Zarraparra eta Txominbelarrak taldeen kontzertua plazan.

**Ekainak 23:**

**17:00etan:** Umeentzako jolasak

**20:30etan:** Afari herrikoia.

Ostean, erromeria Lotxogaz.

**22:30etan:** Sua piztuko dute.

Ostean, berriz erromeria.

### IZURTZA

**22:00etan:** Sua Santo Tomas ermitaren alboan. Urdaiazpiko otartekoak jateko aukera Udalaren eskutik.

### MALLABIA

**20:00etan:** Txitxiburduntzia Herriko tabernan.

**22:00etan:** Sua piztuko dute plazan.

### MAÑARIA

Arratsaldean zehar, jokoak.

**22:00etan:** Sua piztuko dute geltoki atzeko aparkalekuan

### OTXANDIO

**22:00etan:** Sua piztuko dute plazan, eta, Arrabal, Basogai eta Elizaberri kaleetan, esaterako. Kalejira txistulariekin plazatik.

### ZALDIBAR

**18:00etatik 23:00etara:** Suaren aztarnak. 'Raku' izeneko zeramika teknika japoniarra. Zaldibarko eskoletan.



Eguaztenean udal aretoan egindako herri batzarra.





**DURANGO**

# Taldean batu eta oinez egin dute eskolarako bidea

Aste honetan garatu dute esperientzia pilotua Zabalarran, mugikortasunaz hausnartzeko

Zabalarrarikastetxeko hainbat ikaslek taldean egin dute eskolarako bidea asteen. Esperientzia pilotua izan da, eta *Oinezbusa* deitu diote. Ingurumenagaz errespetuzkoa eta segurua den mugikortasunaz hausnartzea izan da helburu nagusia. Frai Juan Zumarraga, Aramotz, Ezkurdi eta Pinondo kaleetatik eta udaletxetik irten dute. Guraso eta teknikari batzuen laguntzagaz egin dute bidea egunero.

Eguazten goizean Frai Juan Zumarragatik irten zen egitasmoan parte hartzen duen taldeetako bat. 08:45ean Alluitz kaletik gora abiatu ziren hamabost ikasle. Euren aurretik zihoan Marijo Romo gurasoa. Umeek, ederto batean joateko aukera daukatela esan zuen. "Denboraz ondo goaz, gainera". Lehenengo zebra-bide-

**Guraso eta teknikari batzuen laguntzagaz egin dute bidea egunero**

**Ekimenaren asmoen artean dago umeen autonomia garatzen laguntzea**

ra heltzean, Romok moztu zuen trafikoa taldea pasatzeko. Handik gora egin, eta Askatasun etorbidean Aramotzeko taldeagaz bat egin zuten. Bertan zetorren, buruan, Gaizka Agirre. Ekimenak eduki duen harreragaz harrirituta

**"Herritarrak konturatu daitezela oinez ibiltzea ere garraibidea dela"**

agertu zen: "Astelehenean euria egin zuen eta ez zen hain ondo atera, baina atzo [martitzena] eta gaur [eguztzena] ikasle askok hartu dute parte". Berari tokatu zitzaion hurrengo zebra-bidean errepidea libre uztea. Umeak lasaiago zetozen azken partean. Agirreren berbetan, ekimenaren asmoen artean dago umeen autonomia garatzen laguntzea.

**Herritarrak sentsibilizatzea** Ume eta gurasoez gainera, herritarrak sentsibilizatzea ere gura dute, Agirrekadierazi zuenez. "Konturatu daitezela oinez ibiltzea ere garraibidea dela". Auto gidari eta oinezko batzuen arreta bereganatu zuten behintzat. Goizeko 09:00ak jo aurretik heldu ziren ikastetxera. ■ M.Onaindia



Oinezbusa ekimeneko partaideak, eguaztenean, Zabalarra eskolara bidean.

## Umeen %81,5ek oinez egiten du eskolarako bidea



Guraso boluntario batzuk eta udal teknikariak.

Zabalarra ikastetxeko guraso elkarteak bultzatuta egin dute *Oinezbusa* ekimena. Iaz Landako ikastetxean ere egin zuten, eta horixe izan dute eredu. Udalak kontratatutako teknikarien laguntzagaz hilabete biko lana egin dute egitasmoa zehazteko.

Umeen artean inkesta bat egin zuten lehenengo. %85,1ek oinez egiten dute eskolarako bidea, %10,5ek kotxez eta %3,6k bizikletaz. Gainera, ibilbideetako gune arriskutsuak zehaztu eta mapa bat egin zuten. Adibidez, zebra-bideetan ikuspena galarazten duten edukiontzia identifikatu zituzten. Horren ostean, ibilbidea egiteko, gune horiek seinalizatu zituzten.

Gaur daukate ikasturte amaierako jaia Zabalarran. Egitasmoagaz lotuta, bizikleta geldoen lasterketa egingo dute.

# Durango identifikatzeko marka aukeratuko dute

50 irudi aurkeztu ostean, bost finalista daude

Hogei lagunekoa lan-talde bat Durangorentzako marka edo irudiaren bila dabil. 50 diseinu aurkeztu dituzte lehiaketara, eta bost finalistaren artean erabaki beharko dute. Alderdietako ordezkari-

**Bigarren faseari ekin diote: herritarrei sare sozialen bidez iritzia emateko eskatu diete**

gainera, herriko kirol eta kultur elkarteetako kideak ere badaude taldean. Bigarren fasea hasi dute orain: sare sozialen bidez iritzia emateko eskatu diete herritarrei.

Iker Ocejá zinegotziak adierazi du era erakargarrian eta biztanle eta enpresak aintzat hartuta egin gura dutela prozesua. Beste esparru batzuetako marketin teknikak udalean aplikatu gura dituzte: "Hiriak, diseinatu eta komertzializatu beharreko produktuak dira". ■ M.O.

## Burgosen egingo ditu udalekuak Inurri eskaut taldeak

Uztailaren 16tik 28ra bitartean egingo ditu udalekuak Inurri eskaut taldeak. Burgoseko Barbadillo del Mercado herrian pasatuko dituzte egunak, azaldu dutenez. Zortzi eta hamabi urte arte-

koentzako irteera izango da. Umeek hainbat ekintza edukiko dute aukeran hamabost eguneko egonaldian. Gainera, azken egunerako gurasoak ere gonbidatu dituzte kanpamentura.

**Inskripzioa Garai jauregian** Udalekueetan izena emateko egun bi ipini dituzte: ekainaren 27a eta 28a. Garai jauregian (liburutegi zaharrean) egingo dute inskripzioa. 160 euro ordaindu beharko dute paperak betetzean. ■ M. O.



**LOTU ZURE ETORKIZUNA!**

**IURRETA INSTITUTUA**  
Goi-mailako Lanbide Heziketako Berarizko Institutua

**MATRIKULAZIOA**  
**uztailaren**  
**5etik - 11ra**

Tel.: 94 466 88 00  
www.iurreta-institutua.net  
idazkaritza@iurreta-institutua.net



DURANGO

## Bateginez: "Elkartearen diru kontuek kezka sortzen digute"

Dirua lortzeko, etxean egindako pastelak salduko dituzte bihar Ezkurdin

**K**risia ongintzara ere ailegatu da. Bateginez Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE) adierazi du egoera gaitza bizi duela. Mari Carmen Hernandez eta Aitziber Antxiak eman dute horren

**Krisiagatik, azken bi urteotan bazkideen %6k baja eman dute elkarteetan**

berri. Krisiagatik, azken bi urteotan bazkideen %6k baja eman dute elkarteetan. Bizi den sasoiaren izan du berba Antxiak: "Jendeak beldurra dio dirua emateari". Barne finantziarioa jaitsita, diru-lagun-

tzekin ere kezka daukatela dio Hernandezek: "Beldur gara etorkizuneari zer gertatuko den, beste lekuetako murrizketak ikusita". Iaz, elkartearen diru-sarreraren %80,31 laguntzaileen eta funts propioen bidez jaso zuten, eta gainerakoa laguntza publikoa izan zen. Durangoko Udalagaz hitzarmena daukate, eta aurten lurretakoak ere laguntza emango die.

Urteotan soberakina eduki du elkarteak, eta hortik tiraka ibili dira. Baina, laster agortuko zaie la uste dute. "Elkartearen diru kontuek kezka sortzen digute". Horregatik, bazkide kuotak igo

**Bateginezek Guatemalan garatzen dituzte proiektuak; hezkuntza eta osasun arlokoak**

behar izan dituzte. Gainera, dirua lortzeko bide berrien bila hasi dira. Bihar, 17:00etatik aurrera, Ezkurdin egingo dute ekitaldi bat. Durangarrei etxean egindako pastelak erotea eskatu diete, gero zatiak euro batean saltzeko.

Bateginezek Guatemalako Pochuta herrian garatzen dituzte proiektuak, hezkuntza eta osasun arlokoak. Proiektuek momentuz aurrera jarraitzen dutela jakinarazi dute bi kideek. ■ M.Onaindia.

## Musika Eskola klimatizatuko dute, 24.000 euro inbertituta

Durangoko Udal Musika Eskola klimatizatzea erabaki du udalbatzak. Alderdi guztiek bat egin dute: eraikina zaharra da eta beharrezkoa da obra egitea. Uda sasoiaren bertan bero handia egiten duela-eta, uda aurretik lanak egitea ondo ikusi dute zinegotzietatik. Aurrekontuetan kreditu aldaketa egin eta 24.000 euro inbertituko dituzte.

**Udan bero handia egiten duela-eta, uda aurretik lanak egitea ondo ikusi dute**

EAJ, Bildu, PSE-EE eta PPren aldeko botoekin onartu dute egitasmoa. Aralar abstenitu egin da, obragaz ados egon arren prozeduragaz bat ez datozelako. "Kreditu aldaketak egiten ibili beharrean, hobe da hausnarketa egin eta lehentasunak ipintzea". Bildu koalizioak ere udal proiektuetan kontrola egotea exijitu du. ■ M.O.



Hernandez eta Antxia, martitzenean, prentsaurrekoan.

## Haitiko baserritarren aldeko kanpaina bultzatu gura dute Gizarte Bizia Egunean

Arte Bizia elkarteak sortu du zapatuko ekimena

"Herri adierazpen kolektibo bezala, arte guztien erreibindikazioa kalean". Horrela azaldu dute Arte Bizia mugimenduko partaideek biharko antolatutako Gizarte Bizia ekimena. Jaialdian batzen duten dirua, Via Campesina mugimenduko Haitiko baserritarren artean elikaduraren burujabetza bultzatzeko martxan jarri duen proiektura bideratuko dute.

**Goizerako, argazkilari bilera, umeen tailerrak eta umeen batukada eratu dituzte**

Andra Mariko elizpean egun osoarako ekitaldiak prestatu dituzte. Goizerako, argazkilari bilera, umeen tailerrak eta umeen batukada eratu dituzte. Arratsalderako, *Tarde para cambiar* adierazpen librea eta Mongoren musika antzerkia prestatu dituzte. Dantza garaikidearen ikuskizuna eskainiko dute institutuko neska-mutilek eta Txoribigun dantzariak. 20:00etan, Arte Bizia batukadak alde zaharra girotuko du. Gaueko 22:00etan musikaren hitzordua jarri dute. The Greg Murder, Seconds, Larregi eta The Mockers taldeek kontzertua eskainiko dute.

## Kontzesionario ofizialak Euskal Harley topaketan

Espainiako 21 enpresa egongo dira Durangon eta 500 motorzaletik gora batzea espero dute



Iñigo Carreto, Kurutzia hotelaren kanpoaldean.

Euskal Harley topaketaren laugarren edizioa egingo dute Durangon hurrengo asteburuan, ekainaren 29tik uztailaren 1era. Harley Davidson Euskal Herria talde antolatzaileko Iñigo Carretok azaldu duenez, Espainiako 21 motor-enpresa egongo dira Durangon. "Espainiako onenak etorriko dira, eta Frantziako batzuk ere bai". Kontzesionario ofizialak egongo dira tarteetan. Harley Davidson markako motorren zaleak Euskal Herri osotik etorriko dira.

500 motorzaletik gora batzea itxaroten dute. Ibilbide bi egingo dituzte batera. Bata Galdameseko auto zaharren museora, eta bestea Durangaldetik zehar. "Euskal Harleyren helburuetako bat Euskal Herria promozionatzea ere bada". Bazkariak, dastaketak eta kontzertuak ere izango dira Landako Gunean. Joaquin Sabinaren bertsioekin, *Una noche sin Sabina* ikuskizuna eskainiko dute zapatuko gauetan. ■ M.O.

**anbotoko argazki lehiaketa 2013**



**12 hile herri**

**oinarriak: www.anboto.org-n**





ABADIÑO



Gerediagan sartu eta Bilbora joateak 2,8 euroko kostua izango du.

## Zapatuan zabalduko dute Gerediagako peaje berria

Urte beteko atzerapenagaz inauguratuko du azpiegitura berria Aldundiak

Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi duenez, ekainaren 23an zabalduko dituzte AP8ko Gerediagako lotune berria eta Iurreta arteko zerbitzua eskainiko duen hirugarren erreia.

Lanak iazko udazkenerako amaitzea aurreikusi zuen Aldundiak lehenengo, eta martxora atzeratu zituzten gero. Beraz, urte beteko atzerapenagaz inaugura-

tuko dute Aldundiko arduradunek azpiegitura berria.

Besteak beste, hiru peaje berri eta hiru biribilgune eraiki dituzte Abadiñoako Gerediaga auzoan, eta 47 milioi euroko aurrekontua izan du egindako obrak.

**Ibilbide tartea doan**

Aldundiaren esanetan, N-634 errepideak Iurretan sortzen duen eraz-

gopenak murrizteko, AP-8a Iurreta eta Gerediaga artean hartzen dutenek, tarte hori dohainik egin ahal izango dute. Iurreta-Gerediaga tartea dohainik izango da noranzko bietan. Gerediagan sartu eta Bilbora joateak 2,8 euroko kostua izango du; Iurretatik Bilborako tartea 2,01 euro da. Beraz, 79 zentimo garestiagoa da Gerediagatik Bilbora joatea. ■ I. Esteban

OTXANDIO

## Autoen Mainerrotarako sarrera mugatzeko herri batzarra deitu dute

Oinezkoari garrantzia emango dion hirigintza eredua osatzeko iritzia jaso gura ditu udalak

Udalak martxan duen Oinez prozesuak oinezkoek lehentasuna duten espazio publikoak sortzea du helburu, eta motordun ibilgailuen herriguneko joan-etorriak murriztea. Bide horretan, urrats berri baten aurrean daude: Mainerrotan ibilgailuen sarrera mugatu gura dute. Horretaz hausnartu eta denen artean erabakirik zuzenenak hartzeko herri batzarra deitu dute eguaztenerako, 20:00etan, Mainondoko gimnasio berrian.

Lehenengo Egoitz Mendizabal arkitektoak eta Santi Uribe

alkateak azalduko dituzte hirigintza eredua eta Otxandioko barne mugikortasun plana.

Ostean, bertaratzen diren herritarrak talde txikitik banatuko dituzte eta hausnarketari ekingo diote. Mainerrotarako sarrera zelan mugatu? Galdera horri erantzuten ahalegindu beharko dute: 24 orduz mugatu, arratsalde, edo asteburuetan bakarrik.

Eztabaida amaitzen denean, jasotako erantzun denak batu, zenbatu eta ondorioak ateratzen saiatuko dira. ■ J. D.



Mainerrota kalea; autoentzako piboteak ipiniko dituzte.



Goiuria auzoa 16 - 48215 Iurreta (Bizkaia)  
Tel.: 94 681 08 86  
[www.asadorgoiuria.com](http://www.asadorgoiuria.com)

## Asador Goiuriaren terraza inauguratuko dugu, ekainaren 29an, barikua

PLATER KONBINATUAK - ERRAZIOAK - ENTSALADAK - SANDWICHAK...







**IURRETA**

# Goiuriako kofradiak udalaren erabakia baliobakoa dela dio

Baliogabetzeko eskatuko dute, eta behar izanez gero, epaitegira joko dute



Auzokoek alkatearen aurka aurkeztutako baztertze-eskaera ez zuen onartu udalbatzarrak.

Lukupeko Troka eta Luku-Txiki ibarbideak lurrez betetze-ko obretan, baimena emateko ahalmena du Iñaki Totorikaguena alkateak. Horrela berretsi zuen udalbatzarrak. Izan ere, Goiuriako Kofradiak, alkatea partziala dela irizita, lizentzia espedientetik baztertze eskatu zuen udaletxean eta, prozesu luze baten ostean, eskari hori atzera bota zuten EAJK, PSE-EEk eta PPK. Orain, kofradiak tramite osoa baliogabetzeko eskatuko du. Baliogabetzen ez badute, kofradiak hausnartuko du berraztertze errekurtsoa aurkeztu edo ez, edo administrazio epaitegira jotzea.

Udalbatzarrak hartutako erabakia baliogabea dela argudiatzeko, Goiuriako kofradiak dio aurkeztutako froga garrantzitsuenak era arbitrarioan baztertu zirela auzitik: batetik, Luku-Baso S.L. enpresaren kontra alkateak zigor-espedientea zabaldu behar ote zuen argitzeko Ingurumen-fiskaltzari egindako eskaria; eta bestetik, Jaurlearitzari eskatutako ibarbideen egoerari buruzko txoste-

na: "2011ko isurketak eta zer bota den argituko lukeen agindu-libururik dagoen egiaztatuko luke horrek". Gainera, kofradiak aurkeztutako galdetegian alkateak zer

## Alkateak prozeduran irizpide gardenak aplikatu direla dio, eta begirunea eskatu du

erantzun zuen ez zitzaizen helarazi, esan dutenez, eta horrek "babegabe" utzi ditu ibarbideen auzian.

## Alkatea, minduta

Iñaki Totorikaguena alkateak ohar bat helarazi die herritarrei buzoietara, eta bere aurkako akusazioak guztiz faltsuak direla adierazi du, "iraingarriak, eta gainera ganora bakoak".

Alkateari "oso gogorak" egin zaizkio sei hile "luzeok", eta dio tratu bidebakoa jasan duela. "Interes bakarra iurretarren alde jokatzea da, beti izan da eta izango da". Prozeduran irizpide gardenak aplikatu direla dio, eta begirunea eskatu du. "Auzotarrek nik alkate jardunean egindako edozein ekimen edo lan kritikatzeko eskubide osoa dute. Baina, aldi berean, errespetua eskatzen dut, eta ez nire kontraritzeko, samina sortu guran. Eta oraingoan, lortu dute". ■ A. B.

## Kofradiak dio aurkeztutako froga garrantzitsuenak era arbitrarioan baztertu zirela

**ZALDIBAR**

## Ilargi taldearen argazki artxiboa plazan ipiniko dute ikusgai

Asteburuan, bihar eta etzi, herritar guztien bistara ipiniko dituzte 200 argazki zahar inguru. Ilargi argazki taldeak 800 argazkiko artxiboa du, eta horko aukeraketa bategaz prestatuko dute erakusketa, udaletxeko plazan. Ilargiren sortzaileetako batek, Rafa Iraetak, duela 25-30 urte inguru egindako argazkiak erakutsiko dituzte, besteak beste: 1983ko uholdeetakoak, herrian gertatu zen lan istripu larri batenak...

Azken hiru urteotan antolatu dute argazki zaharren kaleko erakusketa, eta oso harrera ona egiten diote zaldibartarrek. ■ I.E.

## Auzotarren kezkei erantzun die gobernuak batzarretan

Herritarrek eskatuta, birplanteatu egingo dute Gazagako saneamendua konpontzeko proiektua

Aurreko auzo batzarretan herritarrek adierazitako kezka eta arazoei udalak emandako erantzunak azaldu ditu, besteak beste, Zaldibarko udal gobernuak, "herritarrek ikusi dezaten auzo batzarretan helarazten dizkiguten gaiak landu egiten ditugula udallean", Arantza Baigorri alkateak (Bildu) adierazi duenez.

Aranguren, Gazaga, Urizar eta Goierrin egin zituzten martitzenean batzarrak. Gazaga auzoan, saneamendu sareko arazoak konpontzeko udalak pentsatutako proiektua birplanteatzea

erabaki zuten auzotarrek horrela eskatu ostean.

Atzo, herriguneko auzotarrek batu ziren. Besteak beste, herritarrek San Andresko ur-horniduraren arazoak aipatu zituzten, eta konpontzeko obrak aurkeztu zituzten udal ordezkariak. Bestalde, autoek N-634 errepedean hartzen duten gehiegizko abiaduragatik arduratuta agertu ziren herriguneko auzotarrak aurreko batzar batean, eta gaiari soluzioa emateko, gobernuak zein pausu eman dituen aurkeztu zuen Bilduren gobernuak. ■ I.E.

**MALLABIA**

## Ugartetxea eta Lekue bertsotan Goitako jaietan

Gaur jarriko dituzte martxan Goita auzoko jaiak; 22:00etan herri afarian batuko dira auzokideak

Asteburu osorako egitaraua antolatu dute Goita auzoan. 22:00etan herri afarian elkartuko dira goitarrak. Beñat Ugartetxea mallabiarrak eta Etxahun Lekue larra-betzuarrak bertsotan jardungo dute. Iraitz eta Jokin trikitilari bikoteak girotuko du gaua.

Zapatuan, arratsaldean Gorriti eta bere abereen bisita izango dute Goitan. Ondoren txinga eroate eta txokorbatze lehiaketan parte hartzeko aukera eskainiko dute. Gauerdi aldera San Joan sua piztuko dute.

Domekan, meza egingo dute 11:00etan. Ostean, Mallabiko Gazte Alai taldea ariko da dantzian. Eñaut Gallastegik eta Aitor Urienek ardi txakurrekin erakustaldia eskainiko dute. Mallabian herri kirolenganako duten zaletasuna kontuan hartuta, sega txapelketa prestatu dute jaietarako. Esti, Asun, German eta Zelai arituko dira segan, eta Boliña, Edurne eta Idoia belar meta egiten. Jabier Iñusiña izango dute epaile. Arratsaldean, berriz, umeen jolasak egongo dira. ■ J.G.

## Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6  
Tel.: 94 681 87 92  
48200 ABADIÑO BIZKAIA

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behea  
48200 DURANGO  
Tel./Faxa: 94 621 54 04

PODOLOGOIA 188. Elkargokidea



**OPORRETAN,  
ZURE AUTOA BABESTE  
ZEURE BURUA  
BABESTE DA.**



Inprimatu zure kupoia [www.renaultservicios.es](http://www.renaultservicios.es) webgunean ekainaren 30a baino lehen,  
eta kontsultatu, horrez gain, Segurtasun Pack-etan ditugun deskontuak

[www.renaultservicios.es](http://www.renaultservicios.es)

**RENAULT  
SERVICIOS**

**GAURSA AUTOAK**

ARRIANDI, 12. TEL 94 620 33 00. IURRETA  
GRAN VIA, 65. TEL 94 441 74 50. BILBO

**RENAULT BAKARRIK DAGO ZURE RENAULTAREN PAREAN**

Eskaintza hau penintsulako eta Balearretako Renault tailerren sarean izango da balagarria. Sustapen-kupola 2012ko ekainaren 1etik 30era bitarte trukatu ahal izango da (biak barne). Kupola duenak Renault azterketa 99€-ari egin ahal izango du (zergak barne). Ez da sustapen honetan sartzen Renault azterketa gehi Solaris DPF SW30 olio-aldaketa; azken horren sustapen-prezioa 119€-koa da (zergak barne). Era berean, sustapenetik kanpo geratzen dira Renault markakoak ez diren ibilgailu guztiak, bai eta Renault modeloak izanik 2.0 dCi-ko motorrak edo handiagoak dituztenak ere. Eskaintzen den prezioaren baruan ez dago sartuta hondakinaren kudeaketa-kostua (679/2006 ED). Kontsultatu sustapenaren baldintza partikularrak [www.renaultservicios.es](http://www.renaultservicios.es) webgunean.

RENAULT garrantzia elf



[www.gaursaautoak.com](http://www.gaursaautoak.com)



ELORRIO

# Genero eta lan arloari buruzko informazioa eskainiko dute kalean

Abokatu bi egongo dira hurrengo barikuan plazan, andra nahiz gizonen galderei erantzuten

Herritarrei euren eskubideez informatzeko aukera emango diete abokatu bik kalean. Gaur goizean azokan egon dira, eta hurrengo barikuan plazan ipiniko dute mahaia, 18:00etatik 20:00etara. Generoagaz eta lan arloagaz lotutako zalantzak argitzea da ekimen honen helburua. Elorrioko Udalaren Berdintasun teknikaria da Maitane Iribar, eta ekimenaren zergatia azaldu du: kalera aterata, jendeak lotsa galtzea eta galderak egitea erraztu gura dute. Informazioa era ulergarrian ematen ahaleginduko direla esan du.

Iribarrek dio eskubideen gaineko ezagutza oso eskasa dela orohar; batez ere lan arloan. Jendea bere eskubideen gainean jantzi gura dute, horrela, emakumeek beraien erabakiak askatasunez hartu ahal izateko. "Ezagutza faltak eragin negatibo zuzena dau-

ka emakumeon autonomia eta jabekuntzan".

## Desorekak egonkortu dira

Gainera, adierazi du lehendik zuden desorekak egonkortu egiten direla Espainiako Gobernuak onartu duen lan erreformagaz. Adibidez, kontziliazio neurri ia guztiak -amatasun bajak, lanaldi murrizketak...- emakumeek hartzen dituzte. Horrek ondorio zuzenak ei dauzka jubilazioetan.

Edozelan ere, eratu duten ekimena ez dago emakumeei bakarrik zuzenduta, gurasoen artean erantzukizuna partekatzea ere sustatu gura dute-eta.

Beste gai batzuen inguruko informazioa ere emango dute. Esaterako, jazarpen laborala sufritzean zer egin. Halako kasuetan nora jo azalduko dute informazio-mahaian. ■ M. Onandia

# Jaietako kartelak ikusgai, herritarrek botoa emateko

Hamar kartel aurkeztu dituzte; botoak kontuan hartu arren, erabakia epaimahai batek hartuko du

Elorrioko aurtengo Ferixa Nausikoetako kartela aukeratzeko prozesua zabalik dago. Antolatzaileek azaldu dutenez, hamar lan aurkeztu dituzte lehiaketan. Iturri kultur etxean ipini dituzte ikusgai, eta ekainaren 28ra arte bozkatu ahal-

ko dute herritarrek gehien gustatzen zaien irudia. Baina, herritarren boto hori ez da loteslea izango. Hau da, azkeneko erabakia epaimahai tekniko baten kideek hartuko dute.

## 500 euroko saria

Ferixa Nausikoen jaietako esku-liburuan publikatuko dituzte irabazlearen eta gainerako lehiakideen lanak. Irabazleari 500 euroko saria emango diote, azaldu dutenez. ■ M.O.

**Iturri kultur etxean ipini dituzte ikusgai; ekainaren 28ra arte bozkatu ahal da**



Kartel lehiaketako lanak, Iturri kultur etxean.

# Azoka kulturalagaz abiatuko dute udako eskaintza zabala

Aurtengo nobedadea herrian egingo dituzten bisita turistikoak izango dira



Iriarte, Ariztondo eta Otadui, Tola jauregiko lorategian egindako prentsaurrekoan.

Josune Ariztondo Kultura diputatuak Elorrioko udako eskaintza kulturala goraiatu du. "Kultura, kohesio sozialaren sinonimo da krisi sasoi hauetan". Beragaz batera, Ana Otadui alkateak eta Aitor Iriarte Musikaireko programatzaileak eman dute egitarauaren berri. Bihar izango da udako menu kulturalaren sarrerako ekitaldia: Azoka kulturala.

Goizeko 08:00etatik 14:30era bitartean plazan egingo dute azoka. Bertan, antzinako auto eta motorren erakusketa, liburuak,

filatelia edota diskoak ipiniko dituzte, besteak beste. Azoka honen hamabigarren edizioa izango da biharkoa.

**Antzinako auto eta motorren erakusketa, liburuak, filatelia edota diskoak ipiniko dituzte**

**Uztailaren 4ean, Berrio-Otxoak amari Vietnamentik idatzitako gutunak erreztatuko dituzte**

Bihar hasi eta uda ekitaldiz josi dute. Data esanguratsuenetakoa Berrio-Otxoa Eguna izango da. Uztailaren 4ean, ohiko ekitaldiez gainera, antolatzaileek *Neure amaxo maitia* emanaldia nabarmendu dute. Balentin Berrio-Otxoak amari Vietnamentik idatzitako gutunak erreztatuko dituzte.

Aurten nobedadea ere badutela azaldu du Ana Otadui. Lau bisita turistiko prestatu dituzte: Zenita azoaren bueltakoa, kale-tarra, Sortzez Garbiaren basilikari buruzkoa eta Berrio-Otxoagaz lotutakoa. ■ M. Onandia

MAÑARIA

# Gaiteroen istorioak kontatuko ditu Gamindek

Martitzenerako antolatu du hitzaldia Gerediagak

Durangaldeko gaiteroak eta soinu-tresna horrek eskualdean izandako zabalpena. Horretaz berba egingo du Jon Gamindek martitzen honetan. Gerediagak eratu-tako berbaldea 19:30ean hasiko

**Juan Bilbao gaiteroaren piezak joko ditu, haren seme Karmelo Bilbaogaz batera**

da Mañariko udaletxeko areto nagusian.

Dantza tradizionalaren iker-tzailea da Gaminde, eta 30 urte-tik gora daroaz gaita edo dultzaina jotzen. "Soinu-tresna hau gurean zer izan den eta zer den azaltzen saiatuko naiz". Gainera, Mañariko Juan Bilbaoren gaitarako piezak joko ditu, haren seme Karmelo Bilbaogaz batera. 1991n hil zen Juan Bilbao. Inguruko beste gaitero batzuren datuak ere emango ditu. ■ M.O.

IZURTZA

# Errioxako Quel herrira doaz egun pasa ekainaren 30ean

Gaur 15:00ak arte dago izena emateko aukera

Izurtzako Udalak eta Erdoitzako Amaren elkar-teak egun pasa antolatu dute Errioxako Quel herrira, ekainaren 30erako (zapata). Gaur 15:00etan amaitzen da izena emateko epea udaletxean.

**Picuezo eta Picueza izeneko harrizko monolitoak bertatik bertara ikusiko dituzte**

Ekainaren 30ean, 8:30ean irteango da autobusa herriko plaza-tik. Quel herrira heltzean, olio eta likor ekoizle bana bisitatuko dituzte. Ostean, Picuezo eta Picueza izeneko harrizko monolitoak bertatik bertara ikusiko dituzte. Denboraren joanak eta naturako indarrek moldatutako harri bi dira Picuezo eta Picueza; batek 45 metro ditu eta besteak 30 metro. Venezia jatetxean bazkalduko dute gero, eta dantzarako eta bingorako aukera egongo da. ■ J.D.





## Durungaldean labor

### Inma Berriozabalen osasuna arriskuan

Elorrioko Herrira mugimenduak datorren egunerako Inma Berriozabal preso elorriarraren egoeraren inguruko hitzaldia antolatu du. Arriolan izango da, 20:00etan. Hainbat gaixotasunengatik bere osasuna arriskuan dagoela jakinarazi dute Herrirako kideek.

### Lokalen ordenantza adostea falta da

Durangon, gazte lokalen ordenantza adosteko hirugarren batzarra egingo dute bihar Pinondon, 11:00etatik aurrera. Auzokideekin eta lokalen erabiltzaileekin batzarrak egin eta gero, inplikaturako denak batuko dira bihar, ordenantza berri baten edukiak adosteko.

### Berria laguntzeko, hitzaldia Otxandion

Datorren egunean, ekainak 28, Berria Taldeko 'Zure ziztada behar dugu' kanpainaren berri emango dute Otxandioko kultur etxean. Berriako Jone Zuazo eta Jose Anjel Aldai etorriko dira, Otxandioko Euskaldunon Amaraune elkar-teak antolatuta.

### Sexu Askapenaren Astea Durangon

EHGHEMek eta Andraguneak *Homofobiaren aurpegiak* erakusketaz gainera, bi berbaldi antolatu dituzte. Ekainaren 28rako, Sexu Askapenaren Egunerako, kalejira, txalaparta, manifestu irakurketa, batukada eta elkarretaratzea pres-tatu dituzte.

### Argiñetako lanen informazioa, 29an

Datorren bariku goizean Argiñetako indusketa lanen informazio gunea ipiniko dute Elorrioko plaza. Orain arte ikusitakoaren berri eta irailetik aurrera egingo diren lanen berri emango dute Iñaki Garcia Camino indusketen zuzendariak eta Ana Otadui alkateak.

#### GARAI

## Zortzi gazte astoaren aurkako desafioan, Momoitioko jaietan

Bihar eta etzi San Joan jaiak ospatuko dituzte ermita inguruan; bihar herri-afaria egingo dute

Momoition San Juan jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Trumoitte kultur elkarteak deituta, ermita inguruan batuko dira auzotarrak eta ingurukoak. Aurtengo edizio-rako nobedadea prestatu dute: Garaiko zortzi gazteren eta Iurretako Txispa astoaren arteko desa-

fioa. Domekan, 18:00etan hasiko dira harriari tiraka. Trumoitteko kideek arrakastatsua izango dela uste dute: "Herrian beti egon da herri-kiroletarako afizioa, eta jendea erakartzeko balioko du". Domeka goizean dantzariak ere egingo dira mezaren ostean.

Bihar hasiko dira jaiak. 17:00etarako ipuin-kontalaria ipini dute. 20:00etan Donien-atxa altxatuko dute eta sua piztuko dute gero. Herri-afaria eta erromeriagaz pasatuko dute gaua. ■ M.O.



lazko jaietan umeentzako prestatutako ekitaldi bat, Momoition.

#### BERRIZ

## Herriko kultura anitzek kalera irtengo dute, VII. Topaketetan

Errumania, Maroko, Sahara, Txile, Senegal eta Euskal Herria izango dira partaideak



lazko Kulturarteko Topaketaren momentu bat, perkusio tailerrear.

**M**unduko hainbat doinu, dantza, gastronomia, tailer eta abar izango dituzte domeka honetan Berrizen. Aurtun zazpigarren urtez, hainbat kulturarteko berriztarrek euren ohituren erakustaldia egingo dute, eskolan egingo duten kulturarteko topaketan.

Eguerditik aurrera, henna eta txirikorda tailerrak, Batu musika taldearen ikuskizuna eta gastronomia dastaketa izango dituzte. Aurtun parte hartuko duten herriak Errumania, Maroko, Sahara, Txile, Senegal eta Euskal Herria izango dira. Ostean, herri bazkaria edukiko dute, eta 16:00etan

dantza eta musika bidezko topaketa kulturala hasiko da.

Maria Jesus Garcia Gizarte Ongizate teknikariak adierazi duenez, kulturarteko topaketen parte-hartzea urtez urte asko hazi da: "Hasierako urteetan 60-70 pertsona egoten ziren herri bazkarian, eta ia 200 inguru gerturatu ziren".

#### Etorkinak, %7,08

Osasun, Ongizate Sozial, Kooperazio, Berdintasun eta Inmigrazio-ko Udal Kontseiluak antolatu du jaialdia. Horko kide dira hainbat kulturarteko herriak. Udalkontseiluan etorkinek duten parte hartzea nabarmendu du Orlan

**"Hasierako urteetan 60-70 pertsona batzen ziren bazkarian; ia 200 inguru gerturatu ziren"**

Isoird alkateak: "Eurak ere herri-tarrak dira eta helburua guztien artean integrazioa lantzea da".

Alkateak azaldu duenez, gaur egun, berriztarren %7,08 kanpotik etorritakoa da. Horien artean, %28 marokoarrak dira, %23 errumaniarrak, %11 hego amerikarrak eta %10 senegaldarrak. Gainerakoak Europako hainbat herritakoak dira. ■ A.Ugalde.

**ETXEBIZITZEN KOOPERATIBA MURUETABARRI**

**arrasate**

Durango • FINCAS EZKURDI Ibaizabal auzunea 5B, behea  
T. 946 57 00 23

Bilbao • Sabino Arana, 35 • T. 946 79 03 81

Beste etxebizitza kooperatiba batzuk:  
[www.inmoarrasate.com](http://www.inmoarrasate.com)

FINANTZIAKETA:

**bbk**



## BERBAZ &gt;

# “Durangoko gizon batek kontatu zidan bere osabak Fidel Castro ezkondu zuela”

Pertsona nagusiekin elkarrizketak egin eta 'ahotsak.com' atarian jartzen dituzte Badihardugu euskara elkartekoek



## Nerea Goiria•

- Ibarruri, Muxika, 1981
- Euskal filologian lizentziatua

“Euren lehenengo jorrala zein izan zen gogoratzen dute, eta nik nirea ez daukat akorduan!”

Castro ezkondu zuela! Elizaz! Nik ez nuen imajinatuko Fidel Castro elizaz ezkonduko zenik eta abadea durangarra izango zenik!

**Memoria oneko jendea da, ezta?** Batzuetan ikaragarria da zelako memoria daukaten. Datak oso ondo gogoratzen dituzte, euren lehenengo jorrala zein izan zen ere bai... eta nik orain momentuan ez dakit nire lehenengo soldata zenbatekoa izan zen! Gauza zehatzak gogoratzen dituzte, agian markatu egin dituzten gauzak izan direlako.

**Durangaldeko beste herri batzuetan ere arituzarete ahozko ondarea biltzen.**

Mañarian iaz ibili nintzen elkarrizketak egiten, eta arinago egindako grabazioak ere batu ditugu. Elorrioren hitzarmena daukagu udalagaz, eta elkarrizketez gainera, hizkeraren azterketa linguistikoa egiten gabiltza. Mallabian eta Ermuan hasiera hasieran egin nituen hitzarmenak. Mallabian, gainera, Pello Mugarzak bertoko euskara aztertzeke egindako grabazio mordoa eman zizkigun. Badaude Oromiñoko eta Abadiñoko grabazio batzuk 1985ekoak, bizkaiera lantzeko bere garaian egindakoak. Alberto Erraztik ere Iurretako hainbat grabazio eman dizkigu, 1991 urtekoak. Grabazio zahar horiek altxor handiak dira. Aurrera begira proiektua hezkuntza arloan baliagarria izan daiteke; ahozko hizkerak eta herriko istorioak eskoletako kurrikulumean sartzeko lanean hasi gara herri batzuetan. ■ A.Ugalde.

**E**uskal herriko hizkerak eta ahozko ondarea batzen dabilta *ahotsak.com* egitasmoan. Eibarko Badihardugu elkar-tea da egitasmoaren arduraduna, eta bertan dabil lanean Nerea Goiria. Besteak beste, Mañarian eta Durangon jardun du gerra aurretik jaio zirenak elkarrizketatzen. Durangoko Ahotsak aurkeztu eta gero erantzun ditu galderak.

**Zer gai lantzen dituzte elkarrizketetan?**

Galdetegi bat daukagu, imajina ditzakezun gai guztiekin. Gai batzuk hiztun denekin jorratu daitezke: eskola kontuak, gerra aurreko sasoiak, gerra bera eta gerra ostea, erromeria kontuak, jaiak... Gero hiztun bakoitzak bere ezaugarriak dauzka. Adibidez, Durangon, erraketista profesionala izan zen andra batekin egon nintzen. Bartzelonara joan zen eta sasoi hartan emakume kirolari profesional gutxi zegoen... Errotan bizi zirenei errotako kontuak, artzainei artzaintzako gaiak... Bi-hiru ordu trankil egon gaitezke base-

“Durangon, euskarari dagokionez, transmisioan galera handia egon da”

rritarrekin berbetan. Askotan desagertuta dauden lanbideak eta bizimoduak agertzen dira.

**Zelan egin duzue kontaktua elkarrizketatuekin?**

Durangon adierazgarria da, euskarari dagokionez, belaunaldien arteko transmisioan galera handia egon dela. Ez da erraza izan durangar euskaldunak topatzea; baserrian-eta mantendu da, baina kalean ez da mantendu horrenbeste. Bertoko euskaldunak topatzeko Alberto Erraztigaz kontaktuan jartzeko esan ziguten, berak ezagutzen dituela Durangoko euskaldunak. Egia esan, pare bat izan ezik, beste hiztun denak Albertori esker lotu ditugu, eta azkenean 39 hiztunekin egin ditugu elkarrizketak. Haren laguntza ez bazen izango uste dut oraindik Durangon hiztun bila ibiliko nintzela.

**Transmisio galera hori zertan igarri duzu?**

Askok esan digu “nire edadeko jendeak ez daki euskaraz”, eta hori laurogeita piku urteko pertsona batek esaten dizu; gurasoek bazekitela, baina eskolagunek ezetz. Hiztunen etxetan ere ikusi dut euren seme-alabek ez zekitela euskaraz. Gurasoek oso berba eta esaera aberatsak eduki, eta askotan etxeokoei galdu egin dute hori.

**Galera horren gainean zer esaten dute elkarrizketatuek eurek?**

Eurek badakite, eta jartzen duten arrazoia izaten da “guk txarto pasatu genuen, errepre-sioa eduki genuen euskararen kontra, eta seme-alabek txarto pasatu ez zezaten...”. Eurek mantendu dutena etxean mantendu dute, kalean-eta bizimodu sozial guztia gazteleraz egiten zuten.

**Euren hizkerako gauza asko galdu egingo dira...**

Bai, eta ez bakarrik baserriko tresnen izenak, jada ez direlako erabiltzen; orain txori guztiak dira txoriak, eta arbola denak dira arbolak. Jendeak ez ditu motak desberdintzen. Eta ez

baserriko espresioak bakarrik, kalekoak ere bai: *katuaren txiza*, beti izan da *gernua*. Belaunaldi berriok ez ditugu horrek gauzak jaso, etxean eta eskolan ere ez da hiztegia jorratu... Liburuetan putrea *putrea* da, eta ez *saia*, eta jendeak *urtxintxa* esaten du, eta ez *mixerra* edo *katamixerra*.

**Istoria interesgarri asko entzungo zenituen...**

Ez nuke jakingo istorio zehatz bat esaten. Hiztun bakoitza altxor bat da azken finean. Gerrako kontuak adibidez, horrenbestetan entzun arren bakoitzak modu desberdin batean bizi zuenez, beti izaten dira hunkigarriak. Anekdotak modura, gogoratzen dut Durangoko gizon batek kontatu zidala bere osaba apaiza Kubara joan zela erbestean, eta bertan Fidel

“Mantendu dutena etxean mantendu dute, kalean-eta gazteleraz egiten zuten”



@anbotokultura

# KULTURA

## ANTZERKIA



# Antzerkiaren sorkuntza bultzatzeko Zubi bat eraiki dute zazpi eragilek

Durangoan aurkeztu dute Zubi ekimen berria: Bizkaiko eta Iparraldeko sei antzoki publiko, eta Artedrama eta Le Petit Theatre de Pain antzerki konpainiak batu dira, "euskal antzerkiaren sorkuntza bultzatzen laguntzeko"

**E**gunero antzerkiaren hedapenean eta sustapenean lan egiten duten Hegoaldeko eta Iparraldeko sei antzoki publikotako eta bi antzerki konpainietako ordezkariak aurkeztu dute Zubi egitasmoa Durangoko San Agustin kulturgunean.

"Euskal Herriko antzerkigintzan beharrezko diharduten zazpi kideen adiskidetasunetik sortutako mugimendua izan da Zubi", azaldu du Filgi Claveriek, Luhusoko Harri Xuri Arteen Fabrikako zuzendariak. Hego nahiz Ipar Euskal Herrian, "euskara gizarteratzen laguntzeko euskal antzerkiak daukan inportantzia" azpimarratu dute aurkezpenean. Beharrezko praktikoak bultzatu ditu: "Lan tresna bat da, oinarriturik sorturikoa".

Euskarazko antzerki testu bat garatzeko laguntza emango dute

Gaztelaraz edo frantsesez sortutako lan asko diru-laguntzak jaso ahal izateko itzultzen dira gauregun euskarara. Lanak hasieratik euskaraz pentsatu eta garatzeko baliabideak eskaintzeko batu dira Zubi egitasmoan.

Urtero, euskarazko antzerki testu bat garatzeko laguntza emango dute ekimeneko zazpi parte-hartzaileek. Antzezlan bat aurrera ateratzeko, ekoizpenean eta lana zabaltzen ere lagunduko dute zubikideek. Egitasmoan parte hartzen duten zazpi eragileen artean

Sortzaile berriak dira lagundu gura dituztenak, "geroa direlako"

erabakiko dute antzerkigileek aurkeztutako lan guztietatik zein proiektu lagunduko duten.

Sortzaile berriak dira lagundu gura dituztenak, "euskal antzerkigintzaren geroa direlako". Antzerkigintzan bidea egiten hasi diren tamaina txiki eta ertaineko ekoiz-

penei emango diete lehentasuna, ekimenaren bultzatzaileek jakinarazi dutenez.

Lehenengo edizio honetan parte hartu gura duten konpainiek, irailaren 14ra arte aurkeztu ahaliko dituzte euren sormen proiektuak: antzezlanaren ideia, testua, fitxa artistikoa, teknikoak, aurrekontua eta egutegia aurkeztu behariko dituzte. Artedrama Arte Eszenikoen plataformaren edo Harri Xuri kultur aretoaren helbideetara helarazi beharko dira proposamen horiek.

Azaldu dutenez, antzerki zaletasuna eta publikoa ez da gorpuzten egun batetik bestera. "Emeki-emeki sortzen delako, hautatzen dugun konpainiak eskoletan tailerrak burutuko ditu". ■ I.E.

## Sorkuntzarako egoitza eta baliabide ekonomikoak eskainiko dituzte



Antzerkigintzan sorkuntzan dihardutenei laguntzeko sortu dute Zubi, eta hiru arlotan eskainiko diote laguntza aukeratzen duten artista edo taldeari: batetik, laguntza ekonomikoa emango diete antzerki sortzaileei; bestetik, sorkuntzarako egoitza eskainiko dute; hirugarrenik, emanaldiak lotzen ere lagunduko dute. Edo bestela esan-

Luhusoko Harri Xuri da Euskal Herrian daukagun sorkuntza-tailer bakarra

da, Filgi Claverien berbekin, "proiektuaren premietara egokitutako laguntza artistiko, tekniko eta kudeaketakoa". Lanaren zabalkunderako, ekimenaren parte diren antzokietan emanaldiak eskaini ahal izatea seguratu dute.

Luhusoko Harri Xuri da Euskal Herrian dagoen sorkuntza-tailer bakarra. Hori da Zubiren sorrera bultzatu duten eragileek egun euskal antzerkigintzan ikusten duten gabeziak bat: ideiak gauzatu ahal izateko espazio fisikoa bera falta izaten dutela antzerki taldeek sarritan.

Ekimen honekin, Luhuson, Elorriren, Zornotzan, Durangoan edo Leioan ere hartu ahal izango du egoitza Zubik hautatzen duen taldeak. Leku horietako batean sortuko dute obra, eta 2013ko udazkenean estreinatuko dute.



MUSIKA >



Ekzerretik eskuinera: Liher Gonzalez, Jon Aramendi eta Egoitz Etxebarria; atzean, Peru Magdalena.

# Kuntur Tree: hiru instrumentu, kaleko jendearen folka egiteko

Ahotsa, gitarra eta kaxoia dira Kuntur Tree hirukoteak erabiltzen dituen instrumentuak; ekainaren 9an, Durangoko Intxaurre tabernan aurkeztu zuen taldeak hiru diskoren bilduma

**E**goitz Etxebarria *Gotzane* ahotsa, Liher Gonzalezek kaxoia eta Jon Aramendi *Tximisek* baxua jotzen dute Kuntur Tree musika proiektuan.

Orain arte grabaturiko lanen zuzeneko aurkezpena egin zuten hirurek, Durangoko Intxaurre tabernako kontzertuan, ekainaren 9an. Aurtengo negu eta udaberri artean grabatu dituzten kantak eta zaharragoak eskaini zituzten.

Lan bakoitzak bere soinua du. Udaberri honetan grabatu duten diskoak, eta *homeless folk* kutsua duela adierazi dute taldekideek: kaleko jendearen folka.

Orain lau urte, Elorrioko jailetako herriko gazteen musika taldeen kontzertuetan jotzeko elkar-

tu zen hirukotea lehenengoz. Taldeko perkusio joleak kontatu duenez, urte haretan bertan hasi ziren entseatzen, eta horrela ekin zio-

Diskoak homeless folk kutsua duela adierazi dute taldekideek

“Taldea aurrera atera eta egiten dugunagaz disfrutatzea lortu dugu”

ten jotzeari kaxoia eta baxua, aurretik instrumentu horiek sekula jo ez bazituzten ere.

Musika eginez gozatzen dutelako gustora daude Kuntur Tree taldeagaz, Gonzalezek dioenez: “Apurka-apurka taldea aurrera ateratzea eta egiten dugunagaz disfrutatzea lortu dugu”. Taldea gorpuztuz joan den neurrian, kide berriak batu eta orain arte ipini dioten izenak ere aldatuz joan dira. Hasieran, Kuntur zen; gero, Kuntur Lee izan ziren, eta orain Kuntur Tree dira.

Izen batekin ala bestearekin, urteotan taldearen inguruan izan diren lagunei eta senideei, “ez daudenei ere bai”, eskaini gura izan diote lan berriena. ■ I.E.

## Hiru diskoetako kantak, ardoa eta artea ere batzen dituen euskarri berritzailean

Disko bilduma klasikotik urrundu eta euskarri berritzailean kaleratu dute euren lana

Zelan argitaratu hiru disko batera, ahalik eta formatu merke eta berezienean? Hori pentsatzen ari zirela bururatu zitzaizen ideia.

USB memoria batean bildu ditu Kuntur Tree hiru diskoetako kantak. Ardo botiletatik zintzilikatuta doa euskarri digitala, eta botila bakoitzak etiketan margolan eskusiboa dauka. Peru Magdalenak eta Gotzon Garaiabalek egin dituzte margolan berezi eta bakar horiek.

‘Disko-botila’ ale gehienak saldu zituzten Intxaurre tabernan egin zuten aurkezpenean. Jendeari asko gustatu zitzaion euskarri berritzailea: hirukotearen musika entzun bitartean ardoa dastatu, eta botila bakoitzak dakarren artelantxoaren kontentzea.

Lehenengo diskoak *Gotzan* abeslariaren bidaia islatzen du, Hegoameriketara joan aurretik grabaturikoa. Bigarrena, Kuban

grabatu zuen hango musikariekin: *Ande eta hemendietatik*. Hirugarrena eta berriena da *Kuntur Lee*. ■ I.E.



### GEURE DURANGALDEA

Arantza Arrazola  
Maider Larrañaga  
San Agustin kulturgunea



### ZUBI

Iazko martxoan, Harri Xuri, Luhusoko antzerki fabrikari buruz idatzi genuen. Inbidiaz kontatzen genuen, Lapurdiko bost herri txikik euskarazko sorkuntzaren aldeko apustua egitea erabaki zutela, denen artean kudeatzen duten geurea moduko gune publiko bat antzerki-fabrika bihurtuz.

Bisita hartan, baina, beste kontu batez ere ohartu ginen: Harri Xuriko arduradunak, eta hegoaldeetik joandakook, euskarazko sorkuntzari buruz iritzi beretsua genuela. Eta, hala, *feeling* horri tiraka, beste baterako lotu ginen, hain osasungarria den talde terapiaz harago, elkarlanerako topaguneak sortzeko gai ginen jakiteko; Donibane Garaziko herri antzokia ere gogoetara batu zen. Halaxe konturatu ginen ekarpen txiki askorekin proiektu sendo bat abiarazteko benetako aukera zegoela.

Herenegun aurkeztu genuen prozesu honen lehen emaitzari, Zubi izena jarri diogu. Ipar eta Hegoaldearen arteko Zubi, sortzaile eta erakusleihen arteko Zubi, erakunde publiko eta antzerki konpainia pribatuen arteko zubi. Lehenengo deialdi honek euskarazko sorkuntza bultzatu nahi du.

Ez gara elkarte bat, ez dugu figura juridikorik, baina esku artean ditugun baliabideak probetxuz kudeatzeko aukera sortu zaigu proiektu honekin: piezak lantzeko teatroen ateak zabalduko ditugu, eta antzezlanak erakusteko kontratazio konpromisoak hartu.

Proiektu honetan parte hartzen dugun zazpi erakundeok ideia nagusi bat partekatzen dugulako, gauza txikiekiko maitasuna, Mikel Laboa gogoratzuz: *bakoitzak urraturik berea, denon artean geurea*.

### BERTSOLARITZA >

## Txaber Altube bigarren, eskolarteko txapelketan

Aguraingo Harresi aretoan jokatuta zuten zapatuan Euskal Herriko XXIV. eskolarteko bertsolari txapelketaren finala, eta gazte-txoen taldean sailkatu zen Txaber

Altube bertsolari abadiñarra, bigarren postuan. Paul Iruretagoiena ataurdarrak jantzi zuen sail horretako txapela. Iaz justu alderantzizkoa izan zen sailkapena: Txaber Altubek jantzi zuen txapela, eta Paul Iruretagoiena izan zen bigarren.

Final osoan zehar erakutsi zuten Iruretagoienak eta Altubek nagusitasuna. Emandako gaietan ondo sartu ziren eta ale politak bota zituzten.

Saio horrekin eman zuten Euskal Herriko eskolarteko bertsolari txapelketa amaitutzat. Hamalau eta hamazortzi urte artekoen sailean, bigarren aldiz jarraian Maddi Sarasua lapurtarrak irabazi zuen. ■ I.E.

Paul Iruretagoiena ataurdarrak jantzi zuen finaleko txapela

### ANTZERKIA >

## Antzerki tailerra, Banarte taldearen eskutik, urritik aurrera Abadiñon

Antzerki tailerra eta antzerkiko tailer multidiziplinarra antolatu ditu Banarte antzerki taldeak 2012-2013 ikasturterako. Taldearen Muntzaratzeko lokalean batuko dira urrian hasi eta ekainera arte egingo dituzten saioetan. Antzerkian lehenengoz gerturatu gura dutenei zuzenduta dago Banarteren tailerra.

Antzerkian lehenagotik diharduten aktoreei zuzendurikoa da, aldiz, diziplinarteko antzerki ikastaroa. Hainbat antzerki teknika landuko dituzte parte hartzen dutenek. Besteak beste, kantatzeko teknikak, maskara neutroa eta pertsonaiaren eraikuntzaren inguruko gaiak jorratuko dituzte. ■ I.E.

Muntzaratzeko lokalean batuko dira urrian hasi eta ekainera arte



PROGRAMAZIOA >

# Uztaileko gauak munduko eta hemengo doinuekin betetzera dator Musikaire

Elliot Murphy gitarrajolearen kontzertuagaz abiatuko dute Elorrioko jaialdia, uztailaren 6an



**A**EBetako, Portugalgo, Maliko eta Euskal Herriko musikarien emanaldiak programatu dituzte, besteak beste, uztailean Elorrion ospatuko duten jaialdirako. Tola jauregian izango da jaialdiaren lehenengo hitzordua. Uztailaren 6an joko du New Yorkeko gitarrajole ospetsuena, Elliot Murphy, Olivier Durand laguntzaileagaz batera.

Uztailaren 7an, Luisa Sobralen ahotsa entzungo da Tola jauregian. Billy Holliday edota Ella Fitzgeraldz gain konparatzen dute Portugalgo abeslaria, eta AEBetan jazz artistarik onenaren saria jaso zuen 2008an. Gitarra eta arpa ere joko ditu zuzenean, Sobral abeslariak, eta taldekideen kontraba-

AEBetan jazz artistarik onenaren saria jaso zuen Luisa Sobralek

xua, bateria eta pianoa izango ditu lagun taula gainean.

Uztailaren 21ean, New Yorkeko Hazmat Modine ere ariko da Musikaire. Blues musika nahasten dute zortzi taldekideek, reggae, jazz eta ijitoen musikagaz. Travellin Brothers Big Band taldeak ere blues doinuekin ekarriko ditu Elorrion, baina gertuago sorturikoak, Leioan sorturikoak.

Uztailaren 22an, Fatoumata Diawara malitarraren txanda izango da. Bere herrialdeko musika tradizioa eta aire berriagoak uztartzen ditu: soul, funk eta jazz doinuekin. Euskal Herriko beste talde batek, Korrontzi talde bizkaitarrak, uztailaren 27an eskainiko ditu folk doinuekin.

Tradizioa eta berrikuntza nahasten ditu Fatoumata Diawara malitarrak

Gainera, herriko sortzaileen lana ere izango da Elorrioko jaialdian ikusgai: Logela Multimedia eta Kukai dantza taldeak elkarrekin sortu duten ikuskizun berezia eskainiko dute uztailaren 28an.

Musikairearen egitarauak bestelako ikuskizunak ere badakartza: Dantzaz konpainiaren dantza garaikidea, Tricicle kataluniarren *Ticket*, Extremadurako Teatraro eta Madrilgo Morboria Teatroaren lanak... Dozena bat ikuskizun, uztaileko gauetarako. ■ I.E.

## EGITARAUA

- Elliot Murphy (AEB)**  
- Uztailaren 6an, 22:30ean, Tola jauregian
  - Luisa Sobral (Portugal)**  
- Uztailaren 7an, 22:30ean, Tola jauregian
  - Tricicle (Katalunia)**  
- Uztailaren 8an, 22:30ean, herriko plazan
  - Dantzaz konpainia (EH)**  
- Uztailaren 13an, 22:30ean, herriko plazan
  - Travelling Brothers Big Band (EH)**  
- Uztailaren 14an, 22:30ean, herriko plazan
  - Teatraro (Extremadura)**  
- Uztailaren 15ean, 22:30ean, herriko plazan
  - Morboria Teatroa, (Madril)**  
- Uztailaren 20an, 22:30ean, herriko plazan
  - Hazmat Modine (AEB)**  
- Uztailaren 21ean, 22:30ean, herriko plazan
  - Fatoumata Diawara (Mali)**  
- Uztailaren 22ean, 22:30ean, herriko plazan
  - Korrontzi (EH)**  
- Uztailaren 27ean, 22:30ean, herriko plazan
  - Logela Multimedia + Kukai**  
- Uztailaren 28an, 22:30etan, herriko plazan
  - Morboria Teatroa, (Madril)**  
- Uztailaren 29an, 20:00etan, herriko plazan
- 
- Bergarako Orkestra Sinfonikoa**  
- Ekainak 29, 22:00, Basilikan
  - Gehi Zazpi**  
- Ekainak 30, 20:00, Basilikan
  - Allos Quartet**  
- Uztaillak 1, 22:00, Casajaran

## “Ikuskizun bat eskaintzen dugu egunean, soseguz jesarrita eta gustora entzuteko”

Jaialdia egiten hasi zirenetik dihardu Aitor Iriartek Musikairearen antolakuntza lanetan

### Zelakoa izan da aurtengo jaialdiaren antolakuntza?

Honek ez dauka sekretu larregirik: diru-laguntza segurtatuta daukagunean, merkaturaren zer dagoen begiratzen eta programazioa atontzen hasten gara.

### Diru aldetik ez duzue zailtasun berezirik izan aurretik?

Egia esan, ez. Askotan irakurtzen dugu erakundeak diru-laguntzak murrizten dabiltzala, baina gure

kasuan mantendu egin dira. Guztira 100.000 euroko aurrekontuagaz antolatu dugu jaialdia, azken urteetan bezala.

### Zer ideiarekin landu duzue aurtengo egitaraua?

Gure helburu nagusia aniztasuna bilatzea izaten da beti: diru publikoa kudeatzen dugu eta gure asmoa arte eszenikoetan jorratzen diren ahalik eta aukera gehienak erakustea da: kale antzerkia,

dantza, musika klasikoa, jazz, folka, world music... Horiek guztiak herriko leku atseginetan entzun eta ikustea proposatzen dugu; ikuskizun bat eskaintzen dugu egunean, soseguz jesarrita eta gustora entzuteko jendeak.

### Zein da kartel honetako eskaintzarik erakaragarriena?

Zaila da esaten, izan ere, Elliot Murphy edo Fatoumata Diawara maila gorengoak baitira: oso



bera arrakastatsua burutzen dituzte... Luisa Sobral portugaldarrarena bezala, ezezagunagoak dira beste izen batzuk, baina entzunez gero seguru gaude jendea konbentzitzuko duela.

### Noiztik diharduzu jaialdiaren antolakuntzan?

Badira hamabost urte. Arriolatik bultzatutako proiektua da, eta udalaren izenean aurrera ateratzen duguna. ■ I.E.

**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

**EKAINAK 22 22:00etan GAU ELEKTRONIKOA**  
Sarrera: 8-11 euro.

**EKAINAK 23 AIKOREN BAZKARIA**  
14:00 etatik aurrera.

**EKAINAK 22 22:00etan GAU ELEKTRONIKOA**  
Sarrera: 8-11 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

[www.plateruena.net](http://www.plateruena.net)

**LIBERTIA**  
Hortzuga Antzerki Taldea  
**SANTA ANA PLAZAN**  
Ekainak 24 - 19:00

**LAU-ON SUITE**  
Jazz Kontzertua  
**ETXEZARRETA PARKEA**  
Ekainak 27 - 20:00

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

**UDA KALEAN BIZI**

**Hitz**  
liburu-denda

artekalea 14,  
durango (bizkaia)  
info@hitliburudenda.com  
946 810 776



# IRITZIA >

gutunak@anboto.org

## Gutunak @

### Goiuriko lur beteketa proiektua dela-eta...

Proiektu honen istorioa 2004. urtean hasi zen. Orduetik hona eten bakoak izan dira auzotarren eta udal agintarien arteko tira-birak; azken hauek, denbora luze honetan, prozedura burokratiko itogarriaren babespean, auzotarren eskakizun zilegiak deuseztatzen saiatu dira; baina, hala eta guztiz, arazoa konpondu ez, baizik eta korapilatu egin da.

Adierazgarria da, gaur egun, jatorrizko proiektua, bere erantzukizunekin batera, epai bidean egotea.

Bilduren Iurretako Udal Taldeak honako argibideak adierazi nahi ditu:

- Lehenik eta behin, ezin dugu ahaztu, gertakizunak eman ziren urte gehienetan ordezkaritzarik ez edukitzean, Bilduko hautetsiok ez dugula Goiuriako espedientearen nondik norakoen berri izan alkatearen aurka aurkeztutako errekusazioaren berri eduki arte.

- Aipatutako proiektuari buruz Iurretako Udalak hartu dituen erabaki guztiak, zuzenean Alkateak dekretuz hartu dituela; eta guk dakigunez, ez dira hirigintza batzordean aztertu, ez eta eztabaidatu ere.

- Proiektuari buruzko informazioa ez da izan gardena; hainbat informe eskaera ez dira behar bezala erantzun. Zentzu horretan, ulergaitza zaigu PNV eta PSOEn egoskorkeria eta Goiuriko auzotarrei nahi zituzten froga-bide gehienak galaraztea.

- Auzotarrek jarritako salaketa eta protesta ugariak ez dira tramitatu. Permisibitate zantzuak oso agerikoak dira.

- Erakundeen eskuduntzak (Foru Aldundia, Uraren agentzia, Ingurumen Saila...), era maltzurtean erabili dira.

Arazaoren konponketa bilatzearen alde Bilduren Iurretako udal taldeak egokia deritzo hurrengo lan ildoari:

Udal idazkaritzak informe zehatz eta sakon bat egin ondoren, gaia bere osotasunean hirigintza batzordean aztertu ondoren, kaltetuen iritziak entzun ondoren (auzotarrek eta proiektuaren bultzatzaileak), udal ordezkari guztien iritziak kontuan hartuta, adostutako proposamen bat bideratzeko autua egiten dugu.

Iurretako udaletxeko Bildu taldea

### Agur Barriketan

Euskera Batzordeko oinordekoak gara Barriketanekoak eta hamabi urtetan (1995-2007), egoera berrietara moldatuz, berak utzitako hutsunea betetzen ahalegindu ginen elkartearen gidaritzan lanetan egon ginenok. Urte hauetan lan handia egin da. Batzuetan asmatuko genuen, beste askotan ez, baina urte hauetako lana baloratzeko atzera begiratu gero, orohar pozik egoteko moduan gaudela esan dezakegu, harrotasunez, ez harrokeriaz.

Gauza asko egin dira. Batzuk ondo, beste batzuk ez horrenbeste, baina denak asmo eta jarrera onenekin. Urteek ematen diguten prespektibaren laguntzaz aztertuz gero, eta azken urtetan Barriketan aktiboan egon ez arren, egindako lanak fruituak eman dituela esan genezake eta guk abiatutako hainbat proiektu bizirik dirautela gaur egun ere. Esate baterako, laster ospa-

tuko dugun San Juan bezperako jaia, jaietako suzko zezenak eta herri kirolak, Anboto, Udal Euskara Zerbitzua eta landutako hitzarmenak (kultura eta kirol arlokoak, merkataritzakoa), etorri berriak euskarara hurbiltzeko egindako lana,....

Egindakoa garrantzitsua da, baina nabarmendu beharra dago, hau guztia elkartearen aurrean eta atzean egon diren pertsona guztiei esker egin ahal izan dugu. Denek izan dute eta daukate bere garrantzia. Nork bere mailan, babesa, laguntza edota indarra eman ez. Langileak, batzordekideak, laguntzaileak, bazkideak... Denak izan dira / gara beharrezkoak eta ez dugu aukera galdu gura, Barriketan izenean, denoi egindakoagatik esker ona agertzeko. Sasoiak sasoikoak eta ez neguak gereziak, dio esaera zaharrak. Halaxe, bada, guk ere naturaren aroak behartu barik, naturaltasunez aro bat itxi dugu, beste bat etorriko den itxaropenarekin, ate bat itxi behar delako berria zabaltzeko.

Elorri oraindik badago galtza bete lan euskararen normalizaziora heltzeko. Garai berriei eta erronka berriei heltzeko gogoz datorrenari laguntzeko prest. Agurrik ez.

Barriketan

### Klik batean @



### Aparkaleku falta

Aspalditik, Zaldibarko San Martin Plazan bizi garenok, ezin dugu ezta portalean sartu ere, autoak portalean bertan aparkatzen dituztelako, edo plaza erdian, sartu ezinik etxean ere, batez ere asteburuetan eta noizbehinka astegunetan. San Martingo bizilagunok ezin dugu ezta auzoan aparkatu ere batzuetan. Gure proposamena udalarentzat da, Matienan egin zuten bezala, futbol-zelai zaharra aparkaleku moduan erabiltzea, posiblea baldin bada. Horrela ez litzateke egongo inongo arazorik, bestela, bolardoak jarri San Martinen, aparkalekua erregulatzeko. Nazkatuta gaudete batzuk.

Unai Garcia - Zaldibar

### Sei hankako mahaia



Aitziber Irigoras  
EAJ

### Herriari zor jakona

Gure talde politikoan maiz egiten dogu galdera hau: zer da herriak eskatzen deuskuna? Egungo egoerari erreparatu, estatu mailan arazo ekonomiko larriak, PSOEk eta PPK adreiluari esker sortu eta garrantzirik krisialdiari eutsi ezinik, zein da herriaren eskaera, zein dalehen-tasunezko nahia? Guk geuk, jeltza-leok, erantzun bat badaukagu: erantzukizun osoz jokatzeko. Erantzukizuna, ardura, kaudimena, seriotasuna, zintotasuna... Horiek dira, mendeetan zehar legez, jendeak eskatzen dabezan oinarriak. Eta berauek dira alderdiok erakutsi behar doguzanak, prestutasunez eta bene-benetan konpromiso horiek geure gain hartuta. Batzuek hori guztia "modelo" dala esaten dabe, hau da, "eredu jeltzalea". Guri herriagaz konpromisoa dagoela esatea gustatzen jaku. Arlo politikoan ez gara guapoenak, ez jaku gustatzen gure burua erreka uretan begiratzea, Nartziso legez (gu, bitartean, lanean gagoz); ez dogu gure burua sinpatikotzat hartzen, aldarrikapen potoloak egin eta zentzuketotasuna alde batera lagatuz. Ezin dogu, beste batzuen erara, alderdia agertu edo desagertzeak ematen daben adrenalina-igoera eskaini botu-emoileei. Ez deusogu herriari esaten bete ezin dan promesarik, lau botu lortzeko.

Baina, era berean, zentzunez jokatzeko dogun heinean, herriak badaki norengan izan ahal daben uste osoa. Gure modelo oso garbia da: kontuak garbi dagoz, diruak argi dagoz, eta egia kontatzen dogu. Kanpainan diñoguna gero bete egiten dogu. Eta ez dogu gauza arrarorik egiten. Ez litzake gure estiloa izango kanpainan herriaren parte-hartzea aldarrikatzea (sinpatikoenak izateko) eta gero, boterera heldutakoan, herriari zabor bilketa modelo ez bajako gustatzen, norberaren agintea zuzenean eta kontsultabarik *manu militariezar* tzea. Ezta peajeak kentzeko promesa egin eta, agindua lortutakoan, dagozanak eta hamabost jartzea... Guk gure berbea herriari zor deusogu. Gu herriko jendea gara; gure herria maite dogu, eta erantzukizuna eskaintzen dogu, gure konpromisoa ahalegin guztiekin betetzea, zulo baltzik eragin barik. Horixe da herriari zor deusoguna. Gainerako guztia burubakoek arduragabekiaz sorturiko zarata da, eta herri zuhurrak jakin badaki hori.

### Laguntzaileak:

Bizkaiko Foru Aldundia  
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 94 681 65 58  
Erredakzioa:  
94 623 25 23  
Publizitatea:  
94 621 79 02  
publi@anboto.org

2012ko ekainaren 22a  
10. urtea - 464 zk.

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea.

**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.

**Administrazio burua:**  
Itziar Belar.

**Administrazioa:** Miren Abasolo.

**Publizitatea:** Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna

**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onandia, Amaia Ugalde.


**Maketazioa:**  
Ainhoa Arizmendiarieta.

**Zuzentzailea:** Ekaitz Goienetxea.

**Argazkilaria:** Kepa Aginako, Juanra de la Cruz eta Zaloa Fuertes.



# Atxondoko San Pedro jaiak



anboto



ATXONDO 1962-2012

HIRURAK BAT

50. URTEURRENA

[www.atxondo.net](http://www.atxondo.net)



San Pedro jai zoriontsuak opa deutsuez!



# AXPEKO SAN JOAN JAIAK 2012

## 22 BARIKUA

**11:30ean,** Meza nagusia.  
**Ondoren,** Igel txapelketa.  
**Gero,** Herriko jubilatuentzat lunch-a.  
**16:00etan,** Briska txapelketa; hasiera eta amaiera.  
**18:00etan,** **ESKU PILOTA PARTIDUAK:**

Benjaminak: ATXONDO - LEKEITIO  
 Alebinak B: ATXONDO - USANSOLO  
 Alebinak A: ATXONDO - PORTUGALETE  
 Infantilak: PORTUGALETE - SESTAO  
 Kadeteak: ATXONDO - ZALDIBAR  
 Kadeteak: BERRIZ - MARKINA  
**22:30ean,** ERROMERIA.

## 23 ZAPATUA

**Eguerdian,** **APATAKO MENDI MARTXAREN AMAIERA.**  
**17:00etan,** Mus txapelketaren hasiera.

**Arratsaldean,** Makailua pil-pilean eta tortila txapelketa.  
**OHARRA!** Partaide bakoitzak behar dituen osagai guztiak ekarri beharko ditu.

**MAKILAU TXAPELKETAKO DIRU SARIAK, BERDINAK IZANGO DIRA PARTAIDE GUZTIENTZAT.**

**IRABAZLEAK DIRU SARI BERDINA, TXAPELA ETA GARAIKURRA IZANGO DITU.**

Sariak gazteentzat eta nagusientzat egongo dira.  
 Aurkezpen ordua 21:00etan izango da.

**HERRI AFARIA:** Parte hartu dutenek euren lagun taldearekin frontoian afaldu ahal izango dute. Jai batzordeak ogia, postrea eta kafea jarrito ditu.

**22:30ean,** **SAN JOAN SUAK**  
**Ondoren,** **JAIALDIA: OTXANDATEGI KORALA.**  
 Erromeria **LUHARTZ** taldearekin.

## 24 DOMEKA SAN JUAN EGUNA

**UMEEN EGUNA, ATX-AZPI ELKARTEAK ANTOLATUTA**

**11:00etan,** **ESKU PILOTA PARTIDUAK:**  
 Benjaminak: ZORNOTZA - ELORRIO  
 Alebinak B: ABADIÑO - LEA IBARRA  
 Meza nagusia.

**11:30ean,** **Atxondoko ANDASTO dantza taldea.**  
 Mus txapelketaren amaiera.

**13:00etan,** **ESKU PILOTA PARTIDUAK:**  
**13:00etan,** Alebinak A: OROZKO - LEA IBARRA  
 Infantilak: ATXONDO - DURANGO

**18:00etan,** **ZIRIKA ZIRKUS.**  
**Ondoren,** Txokolatada eder bat.



# ANAIAK, s.a.l.

AROSZTEGIA  
TEILATUGINTZA

Martxa auzoa, z/g - 48 291 Atxondo - Tel./Faxa: 94 623 14 97



# Dantzazalez beteko da Axpeko plaza Luhartz taldearen erromeriagaz

Bart hasi ziren jaiak; bihar kontzertua egongo da suaren ostean, eta domekan amaituko dira ospakizunak



Iñaki Irazabal

Luhartzek urtero eskaintzen du erromeria Axpeko San Juan jaietan. Zapatuan izaten da beti, eta aurten San Joan bezpera egunagaz batera izango da. Jende asko elkartu ohi duen jaialdia da, arrakasta handikoa. Auzotarrak ez ezik, inguruetakoz dantzazaleak ere hurreratzen dira Axpera. Bihar ere, dantzazalez beteko da Axpeko plaza. Atzo hasi ziren jaiak, eta domekara arteko egitaraua daukate aurretik.

Bihar, Luhartzek kontzertuaz gainera, bakailao eta tortilla txapelketak ekintza esanguratsuenak

Luhartzen emanaldia ohiturazko sua piztu ostean hasiko da. Soltean, bikoteka nahiz koadrilan dantza egiteko moduko abestiak joko dituzte. Durangaldeko taldeak lau disko argitaratu ditu bere ibilbidean, eta horrez gain, modan dauden kantuen bertsioak ere egingo dituzten Axpen.

Udan bira egingo dute Euskal Herri osoan, eta Durangaldean ere behin baino gehiagotan egingo dute geldialdia.

## Domekara arteko jaiak

Atzo hasi ziren jaiak Axpen. Gauetz altxatu zuten txopoa, eta tradizioak dioten legez, ostean berakatz-zopa eta txokolatea banatu zituzten auzotarren artean. Gaurko, briska txapelketa eta pilota partiduak daude iragarrita. Erromeriagaz amaituko dute eguna. Bihar, Luhartzek kontzertuaz gainera, bakailao eta tortilla txapelketak izango dira ekintza esanguratsuenak. Lehiaketetarako, bako-

tzak behar dituen osagai guztiak eroan beharko ditu. 21:00etarako aurkeztuko dituzte platerak, eta ostean herri-afaria egingo dute frontoian. Afalostean batuko dira suaren inguruan. Jarraian Otxandategi koralak abestuko du, Luhartzek aurretik.

San Joan egunerako indarrak gorde beharko dituzte auzotarrek. Pilota, musa eta Andasto dantza taldearen saioa eratu dituzte eguerdirako.



## Urtebetetze festa, Zirika Zirkusen ikuskizunean

Zorionak Zuriizeneko lana eskainiko du Zirika Zirkus taldeak domekan. Jaiak amaitu aurreko azkeneko ekitaldietako bat izango da. 18:00etan hasiko dute ikuskizuna. Urtemuga ospatzeko asmoz irtengo dute eszenatokira protagonistek. Azaldu dutenez, urtebetetze festa ikusleekin batera egingo dute.

Ainhoa Juaniz eta Luis Lainez aktoreak egongo dira pailazoan jantzi, margo eta sudurren atzean. Loretsu Traketsu eta Bolintxe Zalaparta dira ikuskizuneko pertsonaiak. "Zirika zirkus eta Bazen behin zir-

koa ikuskizunak disfrutatu dituztenek jakin go dutenez, beti arazoak topatuko dituzte pailazo bi hauek". Klake, malabareak, akrobaziak, dantzak, magia, globoflexia edota oreka jokuak egingo dituzte ikusleen aurrean.

Loretsu Traketsu eta Bolintxe Zalaparta pailazoak Axpeko umeekin batera jaiak ospatzera doaz eta, diotenez, pastela ere eroango dute guztien artean jateko.

Iruñako konpainia da Zirika Zirkus, eta dagoeneko bederatzi antzezlan daukate sortuta.



**ESTAMPACIONES LARRETXE S.L.**

• PIEZAK TROKEL PROGRESIBOEN BITARTEZ FABRIKATZEA

• HAGAKKAK HOTZEKO ESTANPATZEA

• ESTANPATZEA ORO HAR

Jauregi kalea, z/b - ARTIA ind. 5.pab. - 48 292 ATXONDO  
TEI.: 946 231 645 - Faxes: 946 231 436 - www.larretxe.com

**BURDINAK, S.L.**

EBAKITZE LERROA - DESAGERKETA - ZIZAILAK

Artia indus. Tel.: 94 658 31 64 Faxes: 94 658 34 16 ATXONDO



# Atxondoko jai egitaraua

## EKAINAK 23, ZAPATUA

- **08:30ean** Arrantza txapelketa, Artiako presan.
- **08:30ean** Mendi martxa, plazan.

## EKAINAK 28, EGUENA

- **08:30ean** Mendi martxa.

## EKAINAK 28, EGUENA

- **Eguerdian** Jubilatuen bazkaria. Ostein, musika.
- **17:30ean** Kalejira herrikoia eta Txopo txikia.
- **19:30ean** Pregoia udaletxeko balkoitik, Asuntze mendi taldearen eskutik. Ostein, txopo handiaren igoera Oxabi kale animazioagaz.
- **20:30ean** Euskal dantzen ikuskizuna Andasto dantza taldearen eskutik.
- **Ondoren** 'Herrixa dantzan'. Adin guztietako herritarrak elkarrekin dantzan gozatzera gonbidatuko dituzte.

## EKAINAK 29, BARIKUA

### San Pedro Eguna

- **10:30ean** Kalejira herriko txistulariekin.
- **11:00-14:00 / 15:30-17:30ean** Puzgarriak jarriko dituzte igerilekuetan.
- **13:00ean** Nesken partidua.
- **16:00etan** Nesken partidua.
- **17:00etan** Patata tortilla eta bakailao txapelketak. Jakiak 20:30ean aurkeztu behar dituzte parte-hartzaileek.
- **Ondoren** Gau kubatarra Habana 357 taldearen eskutik.

## EKAINAK 30, ZAPATUA

### San Pedro Txiki Eguna Mozorro Eguna

- **10:30ean** Txistulariekin kalejira.
- **10:30etik 13:30era** Abentura jaia: rokodromoa eta tirolina plazan.
- **14:00etan** Koadrilla paella txapelketa.
- **Ondoren** Olinpiadak.
- **19:30etik 21:00etara eta 22:30etik 00:00etara** Erromeria MP5 taldeagaz.

## UZTAILAK 1, DOMEKA

- **10:30ean** Txistulariekin kalejira.
- **11:00etan** Umeentzako pilota partiduak.
- **17:00etan** Igel txapelketa.
- **18:00etan** Irrien Lagunak erromeria.
- **20:00etan** Txopoa botako dute. Ostein, saiheski jana.
- **22:00etan** Antzerkia: Deabru Beltzak.

## UZTAILAK 14, ZAPATUA

- **15:30ean** Autokrosa Markoidako landetan. Itziar tabernan.



• Continental Teves: urteko hornitzaile onenari saria (2004-2006)



2002: ENPRESAREN INGURUMENERAKO KUDEAKETA JASANGARRIAREN EUROPEAR SARIA



- ISO/TS-16949
- ISO 14001
- OHSAS 18001

EMAS sisteman (ingurumen-kudeaketa eta ikuskaritzarako europar sistema) inskribatuta



Bodegas *Laura* Arabar Errioxa

www.bodegaslauna.com

info@bodegaslauna.com

Tel.: 94 682 41 08



# Janariaren, jokuen eta dantzaren inguruan elkartuta

Patata tortilla eta bakailao txapelketa arrakastatsuez gainera, paella txapelketa izango dute aurten Apatan

**T**xopoa altxatzeko astebate eskas gelditzen den honetan, badator apurka-apurka sanpedroen usaina Atxondora. Bihargoizean arrain txapelketa eta mendi martxa izango dituzte.

Goizeko 08:30ean hasiko dira biharko ekintza biak. Arrantza elkartekok antolatutako arrain txapelketa aurten bidegorri albotik Artiako presara eroango dute. Parte hartzeko adin tartea handitu dute, eta, horregatik, jende gehiago espero dutela aurreratu dute. Mendi martxa, berriz, Apatako plazatik abiatuko da, eta Santixa, Albistei Gaña, Larrano eta Atxarte pasatu ostean Axpera egingo dute buelta.

## Hasi, dantzan

San Pedro Egunaren bezperan bertan hasita, dantza asko egingo dute aurten Apatako jaietan. Pregoiaren eta txopo altxatzearen ostean, Andasto dantza taldeak egingo du dantza lehenengo, eta gero herritar guztien-

tzako Herrixa dantzan! ekimena egongo da. Euskal Herrikoak ez dira izango dantzarako doinu bakarrak, barikuan gau kubatarra ere edukiko dute Habana 357 taldeagaz.

## Lehenengoz, paella txapelketa

Mahai baten inguruan koadrilan jateko aitzakia bat baino gehiago edukiko dituzte aurten sanpedroetan. Barikuan, urtero herriko jende ugari parte hartzen duen tortilla eta bakailao txapelketa edukiko dituzte. Horrez gainera, zapatuan, mozorro egunean, aurreko urteetako paella txapelketa bihurtuko da aurten.

Paella lehiaketarako, Euskal Herria kalean elkartuko dira koadrilak eta arroz gozoena nork egin duen koadrilek eurek erabakiko dute. Koadrila bakoitzeko kide bat arduratuko da besteen paella guztiak probatu eta nota jartzeaz. Bazkalostean, olinpiadak edukiko dituzte.

Lau eguneko jai-giroaren testigu izan eta gero, uztailearen leian botako dute txopoa. Aurretik, hainbat erromeria, antzerki eta joku edukiko dituzte Atxondon.

## Autokrosa Markoidan

Sanpedroetako parranda egunak amaitu eta ia aste bira, uztailearen 14an, autokros lasterketak izango dituzte Markoidako landetan. Orduan ere, jai gozoz beteko da herria.



Bihar goizean arrain txapelketa eta mendi martxa izango dituzte

# Harrobiko gazteen partiduek osatuko dute pilota egitaraua

Bizkaiko pala finaleko eta Euskadiko eskuzko finaleko arerioen aurka jokatuko dute Ane Diezek eta Amaia Marizkurrenak

Denboraldi biribila egin dute aurten Ane Diez (11 urte) eta Amaia Marizkurrena (12 urte) pilotari atxondarrek. Euskadiko paleta eta eskuzko txapelketak irabazi zituzten, eta txapelketa horietan jokatutako partida bi errepikatuko dituzte San Pedro Egunez. Haste-

ko, Sopelaren kontra jokatuko dute palan. Euskadiko txapelketara sailkatzeko Bizkaiko finala jokatu zuten Sopelaren kontra. Gero, eskuzko jokatuko dute Gipuzkoaren kontra, Euskadiko finalean egin zuten legez.

Gazte bi horiek ez dira pilota eskolako izar bakarrak. Orain asteberu bi, Atxondoko mutilek Bizkaiko herri arteko txapelketa lehenengoz irabazi dute gazte mailan.

Egun horretan bertan, goizeko 12:00etan Atxondoko pilota eskolan hasi berriek (sei eta hamar urteko neska-mutikoe) jokatuko dituzte partidak.

## Atxondoko Txapelketa

San Pedro Eguneko partidez gainera, uztailearen leian azken asteotan jokatutako Atxondoko Txapelketako finalak jokatuko dituzte 11:00etatik aurrera.



Denboraldi biribila egin dute aurten Ane Diez eta Amaia Marizkurrenak



ZELULOSAZKO ONTZIAK  
BIODEGRADAGARRIAK  
ETA BIRZIKLAGARRIAK



**cemosa**  
CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.

CEMOSA Autonomía, 2 - ATXONDO (Bizkaia).

Tel.: 94 623 17 17 - Faxes: 94 623 17 99. [www.soul-cemosa.es](http://www.soul-cemosa.es)



# Gau kubatarra ospatuko dute Habana 357 taldeagaz

Ekainaren 29an Kubako giroa ekarri gura dute Atxondoko jaietara: Habana 357 musika taldeak egingo ditu gidari lanak

**H**abana 357 taldearen esku-tik Gau Kubatarra ospatuko dute Atxondoko jaietan, ekainaren 29an, 20:30ean. Bilboaldean bizi diren lau musikari kubatarrek eta Atxondon bizi den Aida Diez bilbotarrak osatzen dute taldea. Tronpeta jotzen du taldean Diezek. Son eta salsa doinuaren emaldia eta dantza uztartuta egingo dute jaiak: guaracha, son kubatarra, boleroak, cha-cha-cha, eta mojitoak eskainiko dizkiete bertaraten direnei. Erritmoa eta alaitasuna kutsatzen saiatuko dira.

Bestelako doinuekin, erromerian dantza egiteko hainbat aukera ere eskaintzen du Atxondoko jaietako egitarauak: plazan zein gaztetxean izango dira erromeriarako hitzorduak. Ekainaren 29an, esaterako, Etxilimo taldearen saioa izango da gaztetxean; eta ekainaren 30ean, San Pedro Txiki Egunez, saio bikoitza eskainiko du MP5 taldeak, plazan.

Gaztetxean kontzertuak ere antolatuko dituzte: esaterako, Darako Puaka taldearen kontzertu akustikoa izango da ekainaren 28an, eta beste kontzertu bat antolatu dute ekainaren 30erako.

## Piroteknia, kale antzerkian

Kale antzerkia, perkusioa, piroteknia eta argia eskainiko ditu Deabru Beltzak taldeak Bilboko uztailaren 1ean, 22:00etan hasita Atxondoko jaietan. *Les tambors de feu* ikuskizuna eskainiko dute. ■ I.E.

Guarachak, boleroak, cha-cha-cha, sona eta mojitoak eskainiko dizkiete bertaraten direnei



# Abentura jaia antolatu dute ekainaren 30erako

Ekainaren 28an altxatuko dute txopo txikia, eta umeei zuzenduriko hainbat ekitaldi jasotzen ditu egitarauak

Ekainaren 28an txopo txikia altxatu eta gero, umeentzako askotariko ekitaldiak izango dira Atxondoko jaietan. Besteak beste, ekainaren 29an, San Pedro Egunez, puzgariak ipiniko dituzte igerilekuan, umeek jolasteko. Goizez eta arratsaldean, 11:00etatik

14:00etarako eta 15:30etatik 17:30erako ordutegia izango dute.

Asteburu honetan ere, uretan jolasteko ohiturazko ekitaldi bat edukiko dute Atxondoko jaietan umeek. Hain zuzen, ekainaren 23an, arrantza txapelketa ospatuko baitute Artiako presan.

Ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean ere hainbat ekimen antolatu dituzte umeek gozatzeko. San Pedro txiki eguna ospatuko dute ekainaren 30ean, eta abentura jaia egingo dute egun horretan, 10:30etik 13:30era. Rokodromoa eta tirolina ipiniko dituzte plazan.

Jaietako azken egunean, uztailaren 1ean, bestalde, 17:00etan igel txapelketa, eta 18:00etan Irrien Lagunak erromeria izango dituzte umeek gozagai.

Ekainaren 29an, San Pedro Egunez, puzgariak ipiniko dituzte igerilekuan, umeek jolasteko



## U3 Arkitektura Teknikoa

J.A. Agirre Lekube, 10  
48291 Atxondo

Tlf. 94 620 15 23 / 627 57 55 83  
Fax. 94 681 90 61

E-mail: unai@u-3.es

## Proiektuen Idazketa

Obren Zuzendaritza  
eta Kontrola

Proiektuen Kudeaketa  
Integrala

Txostena Idazketa

Garaje ateak / Automatikoak / Eskuzkoak  
Instalazioak / Konponketa / Mantenua

# ATEMATIK

Artia industrialdea, z/g Tel.: 94 623 15 25 / Faxa: 94 623 18 95  
48292 ATXONDO -BIZKAIA



# San Pedro eta Santa Isabel



**Emakumeen aurkako  
indarkeriarik eta  
eraso sexistarik ez!**

**JAIKETAN BE EUSKARAZ!**





# Berrizko JAI EGITARAUA

## EKAINAK 28, EGUENA

- **19:00etan** Pregoia eta txupinazoa Udaletxean, Berrizko San Lorentzo Dantza Taldeagaz. Jarraian jaietako kartel lehiaketako sari-banaketa udaletxean. Ostean, sardina jana.
- **19:00etan** *Euskal presoak* etxera konzentrazioa, udaletxearen aurrean.
- **19:30ean** Txosnen irekiko dituzte, animazioagaz.
- **20:00etan** Donien Atxa eta Dantzari Dantza entsegu, Elizondo plazan.
- **22:00etan** Erromeria Laiotz musika taldeagaz.
- **22:00etan** San Pedro eta Santa Isabel IV. Nesken eta Mutilen Frontenis Txapelketa, Berrizburu kiroldegian.
- **01:00ean** Punk-karaokea, Txosnagunean.

## EKAINAK 29, BARIKUA (San Pedro Eguna)

- **11:00etan** Margo lehiaketa umeentzat, udaletxeko parkean (euria bada eskolako patio berrian).
- **12:00etan** Meza nagusia. Ostean, Dantzari dantza.
- **17:00etan** Bizikleta martxa herrikoia, udaletxetik hasita.
- **18:00etan** Kale antzerkia: Zoozoom (Markeliñe), Elizondo plazan.
- **18:00etan** Umeen jolasak, Txosnagunean.
- **19:00etan** Jolasak, Txosnagunean.
- **18:30ean** Tiragoma txapelketa, udaletxeko

- parkean (hainbat maila).
- **20:00etan** Dantzari dantza.
- **22:00etan** Areto, saltsa eta sabel dantza ikasleen dantza saioa, Berrizburu kiroldegian.
- **22:30ean** Erromeria Tximeleta musika taldeagaz.
- **23:30ean** Kontzertua Txosnagunean: Arcada Social + Tres41. Txosna Batzordeak antolatuta.

## EKAINAK 30, ZAPATUA (Koadrilen Eguna)

- **11:00-14:00** eta **16:30-19:00** Elizondotik Olakuetarainoko trena, Berrizko Merkatarik Elkartek antolatuta.
- **14:00etan** Paella lehiaketa, udaletxeko lorategian.
- **14:30ean** Bazkaria, Txosnagunean. Tiketak erosi (Fondan, Topan eta Guzur tabernetan daude). Norberak bere bazkaria prestatzeko aukera egongo da.
- **16:30etan** Zirko tailerra (La Berta), Elizondo plazan.
- **17:30ean** Karta joko lehiaketa: mus, tute eta briska. Izen-ematea ordu erdi aurretik.
- **18:30ean** Mozorroen kalejira, Txosnaguneak antolatuta. Sari bereziak banatuko dira, 20:30.
- **19:30etan** Herriko Igel Txapelketa. Izen-ematea ordu erdi aurretik.
- **20:30etik 21:30era** Erromeria Haitzama taldeagaz; Elizondo plazan.
- **21:30ean** Mus, briska, tute eta igel txapelketen sari banaketa, Elizondo plazan.
- **23:00etan** Kontzertua: Hesian eta Boston Jai, Txosnagunean.

- **24:00etan** Bolo Txapelketa.

## UZTAILAK 1, DOMEKA

- **12:00-13:30 / 17:00-19:00** Paintball-a hamar urtetik gorako neska mutilentzat, Kiroldegiko aparkalekuan.
- **19:00etatik 20:30era**, hamazortzi urtetik gorakoentzat.
- **12:00-13:30 / 17:00-20:00** Umeentzako jolas parkea, eskolako patioan.
- **13:00ean** Bertso saioa, Elizondo plazan: Miren Amuriza, Iratxe Ibarra, Gorka Lazkano eta Eneko Abasolo 'Abarkas'.
- **14:00etan** J.R. Corpion II. bakailao lehiaketa, udaletxeko lorategian.
  1. saria 150 euro eta txapela
  2. saria 100 euro
  3. saria 50 euro
- **19:00etan** Herri Maitea akordeoi orkestraren kontzertua, parrokiaren.
- **19:30ean** Herriko igel txapelketa. Hamazortzi urtetik beherako gaztetxoentzat.
- **21:30ean** Diskofesta: musika eta jai.
- **21:30ean** Ikuskizuna eta bideo-emanaldia, Txosnagunean.
- **22:00etan** Gazteentzako bolo txapelketa (18 urtera arte).
- **23:00etan** Bits jai.

## UZTAILAK 2, ASTELEHENA (Santa Isabel Eguna)

- **11:30ean** Gazteentzako Tribiala, udaletxeko lorategian. Hamabi urtetik gorakoentzat.
- **12:00etan** Meza nagusia eta Dantzari dantza.

- **14:00etan** Jubilatuentzako bazkaria. Bazkalostean musika, kiroldegian.
- **17:00etan** Nekazari Olinpiada, eskolako patioan (12-18 urte bitartekoentzat).
- **17:30ean** Haur-antzerki erromeria, Txosnagunean: *Hankapalu* (Kalika).
- **18:30ean** Betiko kantak Duo Deno taldeagaz, udaletxeko lorategian.
- **19:30ean** Barbakoa Txosnagunean. Norberak bere janaria eroan behar du, antolatzaileek sua prestatzeko dute.
- **20:00etan** Dantzari dantza.
- **21:00etan** Tortilla lehiaketa, udaletxeko lorategian.
- **22:00etan** Dantzaldia Drindots musika taldeagaz, Elizondo plazan.
- **23:00etan** Su artifizialak.
- **23:15ean** Dantzaldia Drindots musika taldeagaz, Elizondo plazan.


**Oharra:** Emakumeen parte-hartzea jaietan 5. Argazki Lehiaketa antolatu dute. Lehiaketaren helburua hau da: emakumeek tradizioan bete dituzten rolez gain, beste adierazpen kulturalen eta herriko jaietan, non eta zertan parte hartzen duten azaltzea, rol eta estereotipoak gainditu eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna adierazteko. Oinarriak: [www.berriz.org](http://www.berriz.org) webgunean.

**Club Hípico**  
  
 Eitua auzoa, z/g  
 48240 Berriz  
 Dukiena baserria  
 638 12 70 60  
 652 74 58 32  
**Dukiena-BERRIZ** [www.dukiena.com](http://www.dukiena.com)

**T.A. TORNILLERIA AMEZUA S.A.**  
  
**TORLOJU eta PIEZA BEREZIEN FABRIKAZIOA**  
 Estación, 13 - 36 PK  
 Tel.: 94 682 40 59  
 Faxa: 94 682 79 80  
 48240 BERRIZ (Bizkaia)  
[www.tornilleria-amezua.com](http://www.tornilleria-amezua.com)  
[jamezua@tornilleria-amezua.com](mailto:jamezua@tornilleria-amezua.com)

**Juliantxu**  
 jatetxea  
 946824077-48240 BERRIZ (Bizkaia)

**Amaluru**  
 Liburudenda  
 aldizkariak  
 papera  
 opariak  
 Iturriza 29, Berriz Tel.: 94 682 62 48

SAN ANTONIO, 1.  
 48.240 BERRIZ BIZKAIA  
 TEL: 94.682.62.46  
**pedrojuan**  
 JATETXEA  


**Ganeko Etxe**  
 JATETXEA  
 Elizondo z/g • 48240 Berriz • Tel.: 94 682 40 27  




# Euskararen, parekidetasunaren eta birziklapenaren aldarria

Jai egitarauaren aurkezpenean jai batzordekoek aurreratu dute aurten gastronomia lehiaketetan birziklatzeko poltsak banatuko dituztela, gero konposta egin ahal izateko

**B**ost egunez geratu ere egin barik ibiltzeko jai egitarauari ekingo diote datorren egunean Berrizen. Aurten 60 urte betetzen dituen San Lorenzo dantza taldeak emango die hasiera San Pedro eta Santa Isabel jaietara, pregoiagaz. Ostean, txosnagunea zabaldu, txopoa altxatu eta jairako gogoia praktikan ipintzea baino ez da faltako.

Pagotxa aisialdi elkarteak eta Karrika antzerki taldeak elkarrekin ipiniko dute txosna

lehiaketarako 1.400 batu ziren, eta jai batzordeko kideek jakitera eman dutenez, honezkeroko 1.192 pertsonen eman dute izena lorategiko bazkarirako.

**Adin guztientzako aukera**  
Jaietarako udalak 64.500 euroko aurrekontua eduki du. Orlan Isoird alkateak jai egitaraua aurkezteko

prentsurrekoan baloratu duenez, "iazko antzerako diru kopurua daukagu, eta egun gutxiago izanda, aurrekontu dezentea da". Jai batzordeko Miren Iturriagaetxebarririk nabarmendu duenez, egunero egongo da adin guztientzako aukera.

Jaiak parekidetasunean eta euskaraz bizitzeko deia egin dute

jai batzordekoek, eta jaietako emakumeen parte-hartzeari buruzko lehiaketan parte hartzera animatu dituzte herritarrek.

### Txosna bat gehiago

Aurten txosnagunean sei txosna egongo dira. Pagotxa aisialdi elkarteak eta Karrika antzerki taldeak elkarrekin ipiniko dute txosna. Txosnaguneko egitarauan karaoke punka berreskuratu dute aurten, San Pedro bezperarako.

Aurreko urteetan bezala, koadrilaren egunean moztarrotuta joateko deia egin dute, eta txosnagunean bazkaria egongo da zapatuan. Bazkalostean Olakuetara joan-etorria egingo dute kalejiran, eta sari-banaketa berezia egingo dute, umoretsu.

**Dagoeneko, 1.192 pertsona**  
Aurten lehenengoz, gastronomia lehiaketa guztietan birziklapenerako poltsak banatuko dituzte. Jai batzordeko kideen berbetan, "paella lehiaketan, batez ere, zabor asko sortzen da, eta hondakin horiek konposta egiteko aprobetxatu gura ditugu". Jaietako egun handienetako bat izaten da Berrizen koadrilaren eguna; iaz paella

"Paella lehiaketan zabor asko sortzen da eta konposta egiteko aprobetxatu gura dugu"

Jaietarako 64.500 euroko aurrekontua izan du udalak, iazkoaren antzerako kopurua



**GAER** **DESINFEKZIOAK**  
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:  
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...  
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 / 658 75 72 79 - 48240 BERRIZ

**VCG decoletaje** Eitua industrialdea, 20 BERRIZ  
Vda. de Cándido Gastelurrutia, S.A. Tel.: 94 682 40 12 Faxa: 94 682 79 78  
[www.vcg-decoletaje.com](http://www.vcg-decoletaje.com)  
[comercial@vcg-decoletaje.com](mailto:comercial@vcg-decoletaje.com)

**DIA**   
Zengotitabengoa • BERRIZ  
☎ 946 824 215  
Jaietan ondo pasatzeko prezio merkeenak

**FORJAS DE BERRIZ S.L.**   
Forja eta beroko estanzak, neurrira eginiko piezak  
Iturriza, 22  
48240 BERRIZ (Bizkaia)  
Tel.: 94 682 65 20  
Faxa: 94 682 65 21  
E-mail: [sales@forjasdeberriz.com](mailto:sales@forjasdeberriz.com)  
[www.forjasdeberriz.com](http://www.forjasdeberriz.com)



# Bost On Jai, Hesian eta Arcada Social ariko dira zuzenean

Ska, hardcore eta punk doinuei eta erromeriari egin diote lekua, besteak beste, Berrizko jai batzordearen musika egitarauan

**B**erriztarrak eta bisitariak jairako musikaz blaitzeko prest datoz Boston Jai eta Hesian taldeak. Jai batzordeakekainaren 30erako gonbidatu ditu kontzertua eskaintzera. Txosnagunean ariko dira talde biak.

Ibilbidea 2006ko udaberrian abiatu zuen Nafarroako Hesian taldeak. Jaiak jai giroa berotzen eman dituzte azken urteak, eta lau disko kaleratu dituzte. Uda Euskal Herriko jaietan kontzertuak eskaintzen emango dute.

Bost musikaririk osatzen dute, bestalde, Bost On Jai taldea. Iaz Triki-zio taldean jotzen zuten musikariek osatzen dute boskotea. Iñaki Etzezarra berriztarrak da taldeko abeslaria, eta erromeria tradizionaletik abiatuta festarako musika egiten dute.

Besteak beste, euskal taldeen bertsioak eskainiko ditu Berrizko txosnagunean ere Bost On Jaiak: jai giroa ahal beste zabaltzeko. Hainbat estilotako kantak eta trikiaren doinuak nahastuko dituzte.

Kalean jai giroa zabaldu eta belarriak gozatzeko beste hainbat aukera ere izango da herriko jaie-

tan. Esaterako, Herri Maite akordeoi taldeak uztailearen leaneskainiko du emanaldia elizan, 19:00etan hasita.

Hurrengo egunean, uztailearen 2an, Duo Deno bikoteak emango du kontzertua. Gitarrak lagunduta, euskal kantak abestuko dituzte, 18:30ean, barakaldarrek. Udaletxe aurreko lorategian izango da kontzertu horretarako hitzordua.

Txosna batzordeak gonbidatuta, ekainaren 29an joko du Arcada Social taldeak kontzertua

## Arcada Social txosnetan

Txosna batzordeak gonbidatuta, ekainaren 29an eskainiko du Arcada Social taldeak kontzertua. Arrasateko taldea 1997an sortu zuten, eta street punk estilora jorratzen du laukoteak. Martxoan Mauka dis-

ketxeagaz kaleratu zuen diskoa aurkeztuko du Arcada Socialek Berrizen: *Beste istorio bat*.

Baina, kontzertu horren aurretik, Berrizko Tres41 musika taldea igoko da txosnaguneko taula gainera, 22:30ean. Hardcore doinuak eta letra gordinak eskainiko ditu herriko laukoteak.

## Publikoa ardatz

Joan zen astean Iurretako Kalez Kale jaialdian aurkeztu zuen Zornotzako Markeliñe antzerki taldeak *Zoozoom* ikuskizun berria. Ekainaren 29an, San Pedro Egunean, Berrizen ikusteko aukera egongo da, 18:00etatik aurrera. Ikusleen parte-hartze aktiboa eskatuko dute *Zoozoom* antzezlanerako. Hain zuzen, publikoa da kalerako obra horren ardatza. Markeliñeren ohiko errezeta jarraitu dute obra sortzeko: "Ahalik eta testu gutxienagaz ahal den gehiena adierazten saiatzea".

Ekainaren 30ean, La Berta taldeagaz zirku tailerlean parte hartzeko aukera ere eskainiko du aurtengo jai egitarauak. Elizondo plazan izango da, 16:30ean.



# "Izan direnak eta garenak elkarrekin ospatuko dugu"

San Lorentzo dantza taldeak 60 urte bete dituzenez, txupinazoa botako du: "Herritarrei ondo pasatzeko gonbita egingo diegu"



**S**an Lorentzo dantza taldeak piztutako txupinazoa hasiko dituzte aurten San Pedro eta Santa Isabel jaiak. Aurten, abuztuko San Lorentzo jaietan, 60 urte egingo ditu taldeak. Dantza taldeko kide Jon Aldekoak dio pregoia oraindik ez dagoela amaituta eta bihar, San Joan egunean batzen direnean amaituko dutela. Dena dela, testu klasikoak eta laburra izango dela aurreratu du Aldekoak: "Ez dugu sermoirik emango. Herritarrei jaietan ondo pasatzeko gonbitea egin gura diegu. Horretarako dira jaiak. Dantza taldearen 60. urteurrena ere gogoratu dugu".

Taldea 1952ko San Kristobal jaietan sortu zuten. Izen bereko ermitaren bueltan jai giroan zebilen San Lorentzoko lagunarte bati bururatu zitzaion dantza taldea eratzea. Hilabete bakarrik faltaz auzoko jaietarako, baina denbora

faltak ez zituen kokildu. Beste ezaugarri batzuk batu, gogoz entseatu eta 1952ko abuztuaren 10eko San Lorentzo jaietan debutatu zuen dantza talde berriak.

Aurten 60. urteurrena auzoko jaietan ospatuko dute: "50. urteurrenako ospakizuna herri osora zabaldu genuen. Aurtengoa auzoko izango da. Izan direnak eta gaur egun garenak batu eta elkarrekin ospatuko dugu".

Hamalau dantzarik osatzen dute gaur egun taldea, eta ordeko berriak lortu guran ari dira, iaz hasitako ekimen baten bidez: hirulau dantzari klaseak emateko prest agertu ziren. Herrian deialdia egin eta bost eta bederatzi urte arteko hamabost gaztetxok eman zuten izena. Denak ilusioz dabilzala entseguak egiten dio Aldekoak: "Nerabezaroa izango da edaderik konplikatua. Kirola dela, juer-ga dela... Orduan uzten dute dantza gazterik gehienek. Orain dabilzan erdiek gugaz jarraitzen badute, pozik egongo gara".

Taldea 14 dantzarik osatzen dute gaur egun eta erreleboa lantzen ari dira

## Jaietan, nahi duen edonor

San Pedro eta Santa Isabel jaietan San Lorentzok ez du erakustaldirik eskainiko taldean: "Dantza saioak egoten dira, baina deialdia orokorra izaten da [edonorentzako] eta ez taldearentzako. San Lorentzoko batzuk parte hartuko dugu, Ireñe taldeko batzuek ere bai... Denok elkarrekin egiten dugu dantza jaietan".





